

TOKIKOM

2016ko maiatza | 159. zenbakia

ai kor!

txorierriko aldizkaria

Saskibalaurretarrak



HARKAITZCANO SONDIKAKO JAIK EBAZTEKO ESKUBIDEA BbK Music Legends





GIRORIK ONENA SONDIKAKO JAIETAN

SONDIKAKO



UDALA

ETORRI ETA
PARTE HARTU

L

auto-escuela SONDIKA

*Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa*

Mateo Bidaurreazaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza Iturriondo, 2 (goia)
Telefonoa: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo

Martínez Zaldueño Doctores
Mediku estomatologos
EHUko Odontologia irakaslea
Pamk EEUU Protesiak

Clínica Sondika Dental

*1983tik hona zainitzen dugu zure bizi-irribarra

Protesiak Inplantean gainean
Ortodontziak
Periortodontziak

Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
e-mail: ramonzaldueño@hotmail.com
www.euskalnet.net/sondikadentli

Txorierrri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31

SONDIKAKO BATZOKIA

Eguneko menuak
Enkarguzko menuak
Eguneko menuak, enpresentzat

Goiri Erdikoa, 1
48150 Sondika
T: 944710624

Monisima

Arropa eta osagarriak


Sabino Barea - Sondika

Tlf 688602036

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

-  **4** Eritxiak
-  **5** Gutunak
-  **6** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Eihar Astobieta, kalistenia zalea
-  **12** Gurean izan da... Harkaitz Cano, idazlea
-  **14** Gaztea eta... Igone Regidor, itzultzailea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Aurretarrak, saskibalioan murgilduta
-  **22** Sondikako San Joan jaiak
-  **25** Iñigo Apoita, mendizalea
-  **26** Ebazteko eskubidearen aldeko adierazpena
-  **28** Izaskun Jauregi Larrazabal, postaria
-  **30** Baserri mundua... Solo ekologikoa II
-  **32** BBK Music Legends Festibala
-  **34** Larrabetzun, energia berdearen alde
-  **35** Aikorrizketa... Txinbo burubeltza
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



22 San Joan Sondikako jaiak



26 Ebazteko eskubidearen aldeko adierazpena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
 POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta,
Arrekili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Ana Mezo, Txelu Revuelta, Roberto Gómez, Idoia
Andrés, Txorierriko udal euskaltegia, Jon Goikouria Larrabeiti, Oihana
Astobieta eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.

Jubilatzea, erretiratzea, pentsionista izatea

A din batera helduz gero, zer ote da kontua? Erretiratzea ote da ba? Jubilatzea? Ala pentsionista izatea? Sarritan entzuten dira gure inguruan berrik, sarri erabiltzen ditugu ahoan. Soldatapekoa den bizitza laboralari distantzia hartzea da erretiratzea eta ondo dagoen zerbait da. 40 eta 50eko hamarkadetan jaiotakoan artean hainbat daude merkatu laboralean 40 urtetik gora ibilitakoak. Nahikoa ekarpen egin dute eta badute arrazoirik erretiratzeko. Batetik, dezente urte eman dutelako lanean; bestetik, topikoa bada ere, ez da txantxa, beste batzuentzat tokia uztea.

Horiek lan guztiak egin ondoren dator erretiroa. *Jubilazio* berbaren errora joanda, latineko *jubilare*-tik datorrela esaten da. Oihu alaia egitea da bere esangura, hau da, *jubiloz* bizitzen jarraitzea, bizitzaz disfrutatzen jarraitzea, presiopean, erlojupean egin izan dugun lan batetik alde egitea.

Jubilazioa grekoen kulturen eta bestelakotan ere agertzen da eta kultura desberdinek modu desberdinean ospatu izan dute.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, Frantziako eta Alemaniako langile gehienak oso kaskatuta helden ziren erretirora. Gaurko erretiroa sasoi hartan langileen borrokari esker irabazitako eskubidea da. Gaur egun eskubide sozialtzat hartu beharreko zerbait da. Hala eta guztiz ere, erretiratu edo jubilatu den pertsona pentsionista da. Pentsionistak kalean sarri ikusten ditugu beraien eskubideak defendatzen, bizitzeko modu duinak errebindikatzen.

Jubilatzean helmuga horretara zelan helden garen da kontua; osasuntsu, bizitzeko moduarekin, bakardadeak harapatuta, psikologikoki desorekatuta ala ez. Jubilatu ondoren lanak libre uzten dituen orduak betetzea zaila izaten da batzuen kasuan. Psikologoek derrigorrez betebe-



ANA MEZO
(Irakaslea)

harrik ez bilatzea gomendatzen dute. Ikerlarien ustez, egokiena erretiro graduala izan beharko litzateke, baina gehienetan ezinezkoa da.

Simone de Beauvoir idazleak *La vejez* liburuan dio: "Aurrean daukagun etorkizuneari dago gure biziari zentzua ematea. Ez dugu jakingo nor garen, ez badakigu nor izango garen. Edadetu pertsona horretan ikus dezagun geure burua". Hau da batzuei egokitutakoa. Gazteagoak direnentzat jubilatzeko eskubidea non eta zelan izango den, auskalo.

Txorierrin, euskera eta euskal kultura sustatzea helburu daukan Baserri Antzokiak atea zabalduko dau laster baten. Esan leiteke, daborduko errealtate dan proiektuaren bidez, apustu egiten dala geure hizkuntza erabilera-esparru estrategikoetan balioetsi eta jendarteratzeko, aisialdi-kultura zein enpresa arloetan, kasurako. Pozgarria da, benetan.

Itzel pozgarri be bada jakitea proiektuak eragile ugari eta jatorri ezbardine-takoek bat eginik egin dauala aurrera: herri erakundeak (Udalak, Mankomunitadeak), euskera alkarteak (TOTOAN) eta mota askotako bazkideak (herritarrok, dendariak, enpresak, alkarteak...). Hiru

Baserri Antzokian atea zabalik



JOSE LUIS REVUELTA
(Irakaslea)

hageok munarrian, partaidetza zabala agerian.

Sarritan esan izan da euskaldunon artean, aurrera egingo badogu, hizkuntzaren aldeko indarrak metatu beharra dagoala. Euskerak estatu arrazoi izan behar daua sinistuta gagozanok pentsaten dogu norantza egokian eta ganoraz pausu sendoak emon geinkezala, beti be auzolanean eta ekinean alkatuta behar egin ezkeru.

Akabualdi honetan lez: Baserri Antzokia guztiontzako zabalik eta ibilteko prest!



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, AIKORI-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Bilbo eta Txorierriren arteko bidegorria posible da, eta era merkean, gainera. Horretarako, Erandioko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzak baino ez da behar. Atzo bertan, amak paper batzuk ekarri zituen etxera. Bere enpresak ekimen berri bat jarriko du martxan, eta lanera bizikletaz doanari kilometro bakoitzeko ordaindu egingo diote. "Neure adinagaz ezingo neuke Bilbora bizikletaz joan. Ganera, Enekuritik ezin leiteke bizikletaz pasa", esan zidan. "Bai, egia da, Enekuritik ezin leiteke ez bizikletaz ez oinez pasa", erantzun nion. Hurrengo egunean, Bilbotik etxerantz autobusean nindoala, azken hori eduki nuen buruan bueltaka. Benetan ezin daitekeen Enekuritik oinez pasatu?

Erantzuna Enekuri jaitzi eta Asuara heldzean izan nuen. Autobuseko leihotik begira zubi bat ikusi nuen, Asuaberri eta Asuaren poligonoen artean dagoena. Egia esan, egunero ikusten nuen. Izan ere, egunero milaka eta milaka auto, motor eta kamioi igarotzen dira bere azpitik, alde baterantz zein besterantz. Baina, hala ere, ikusezina da jendearentzat.

Etxera heldu eta ordubete pasatu baino lehen, bizikleta gainean nengoen. Larrakoetxetik irten eta ordu laurden batean Asuan nengoen, zubira heldzeko asmotan. Zubira iristeko, lehenik eta behin, eskailera eta arrapala batzuk igo behar

Bizkaiko zubirik garestiena



dira. Eskailera ez baterik igoera oinez egin nuen, bizikleta eskuan neramala. Zubira iritsi, Txorierriko autobidea zeharkatu, eta beste aldeko beste hiru eskailera-atal igo eta gero, Fano auzoan agertu nintzen. Handik Carrefourrerantz doan errotondara iritsi eta Enekuri igotzea bost minutuko kontua izan zen, eta Bidegorritik Deustura iristea, beste bost minutu. Bilbon nengoen, Loiu eta Bilboren arteko tartea bizikletaz eginda, errepide nagusia zapaldu barik, eta ordu erdi pasatxoan. Hasierako harriduratik haserrera berehala pasatu nintzen. Nola liteke, halako zubi bat edukita, bidegorritik ez egotea? Nola liteke zubitza hori eraiki eta ez aprobetxatzea?

Ikuspuntu okerra egon da hemen. Zubi hori Fano auzokoentzat eraiki zen, ziurrenik, handik Asua aldera oinezko irteera izan zezaten. Baina haratago begiratu beharko genuke: Txorierra eta Bilbo bidegorritz lotzeko bidea da. Zailena egin da dago, zubia eraikita dago. Eskailera kendu, arrapalak jarri eta kartelak ipintzea baino ez da falta. Ekonomia aldetik ikusita, zubi hori Bizkaiko zubirik garestiena izango da. Hura eraikitzeak ipini behar izan zen diruak ez dio titulu hori emango; dituen aukerak aprobetxatu ez izanak, oster, bai.

Andoni Solorzano Orue

AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburabata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Asteleheneretik ostiralerarte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75


BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI guinea

ERREKA
ONDO
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



Maiatzaren 21ean ospatu zuten Iparralde Eguna, Lezamako Udalak, Zorritzetan euskara elkarteak, Kurutze dantza taldeak eta Gazte Asanbladak antolatuta. Azaldu digutenaren arabera, Iparralde Egunak "gutxi ezagutzen den Euskal Herriko parte horren kultura, euskara, dantzak, kirolak, folklorea... lezamarrei ezagutaraztea eduki du helburu". Horretarako, ekintzak antolatu ziren egun osoan zehar, hala nola dantzen agerraldia, kalejira eta kontzertuak. Gainera, aurreko egunean Ipar Euskal Herriko hizkuntzari buruzko hitzaldia ere antolatu zen. Ekitaldietan Lapurdiko Oroï-Bat dantza taldeak, Zuberoako Zalgize eta Ezpeizeko dantzariak, Kli-k taldeak, Niko Etxartek eta Joxe Replay taldeak hartu zuten parte. Herri bazkarian 160 laquin batu ziren.

a: Idoia Andrés

Maiatzaren 14an, Mikel Artetxe Txirrindulari Zaleak taldeak "Mikel Artetxe" Urban Race lasterketa antolatu zuen Larraetzun. Txapelduna Jon Barrenetxea (Gastronomia Baska-Avia) izan zen. Talde mailan, Basati Bike taldeak eraman zuen txapela. "Lasterketak helburu bi ditu: alde batetik, txirrindularitzarako zaletasuna herrian berriro piztea. Bestetik, herrian Txomin Aiarza txirrindulari gaztea dugu, baina askok ez dute ezagutzen. Lasterketaren bidez, gure Txomin herrian ezagutzera eman nahi dugu", esan dute antolatzaileek.

Guztira, 70 txirrindularik hartu zuten parte lasterketan, baina 22k bakarrik bukatu zuten. "Parte-hartzaileen kopurua ez zen

oso handia izan, lasterketa berri-berria delako, baina antolatzaileok eta babesleak poz-pozik gabiltza emaitzarekin. Bestetik, oso txirrindulari gutxi izan ziren lasterketa bukatzeko gauza. Izan ere, kadeteen artean ezberdintasun handiak daude eta hori nabaritzen da emaitzetan". Txomin Aiarza larrabetzuarrak 21. postuan bukatu zuen lasterketa. Irteera eta helmuga Larrabetzun jarri ziren, baina txirrindulariak Lezamatik ere ibili ziren. Antolatzaileen esanetan, "txirrindulariak sei aldiz pasatu ziren Andra Mari kaletik eta horrek izugarri hurbiltzen du kirola, herrian bertan zuzenean ikusteko aukera dagoelako". Lasterketaren batera, omenaldi bat egin zioten Mikel Artetxe txirrindulari larrabetzuar profesional ohiri.



 *Ale-apaindegia*
M^a Antonia Llodio 
 
Txontemiko etortzailea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**Garmendia
ardoak**

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Iñaki **Jabi**

94 455 65 08 **94 452 14 31**

Magalarte
txakolina

ARTXAKALETA VERDE ETA BIZKAIAR OITZA



75 cl.
10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen



Lote - 1 - 05


hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Parte hartu Lagatzu Eguneko antzerkian!



a: Roberto Gómez

Urtero moduan, Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Lagatzu Eguna-Euskal Jaia antolatu du ekainaren azken astebururako, ekainaren 25erako hain zuzen ere. Lagatzu Eguna euskara eta herritarren jaia da eta, horregatik, ekitaldi parte-hartzaileak antolatzen dira. Aurten, herri antzerkia egingo dute eta horretan euskara eta Zamudioko historia izango dira protagonistak. Hala, Josu Camararen zuzendaritzapean, eszenetan banandutako ikuskizuna prestatu dute eta, besteak beste, industrializazioa eta emigrazioa, trena, Gerra Zibila eta etorkizuna jorratu dira.

Saioa Zamudioko Kultura Etxean egingo da, eskola zaharretan, 12:00etan, eta Lagatzu elkarteak bertan parte hartzeko deialdi zabala egin du. Lagatzuk dantzariak, abeslariak, aktoreak, figuranteak, musikariak eta umeak behar ditu herri antzerkian parte-hartzeko. Beraz, edozeinek du antzerkian parte hartzeko aukera. Horretarako, interesa dutenek e-mailez, telefonoz edo ahoz jarri ahal dute harremanetan Lagatzuko kideekin. Aktore nagusiak maiatzean hasi ziren entseguak egiten eta besteek ekainean zehar prestatuko dute ikuskizuna.

Antzerkia ekitaldi nagusia izango da Lagatzu Egunean-Euskal Jaian, baina ez bakarra. Betiko moduan, Zamudio eta Txorierriko euskaltzaleak herri bazkarian elkartu ahal izango dira. Ostean, Taberna Ibiltaria musika taldea arituko da eta georago erromeria egingo da. Era berean, arratsaldean zehar, umei zuzendutako jokoak antolatuko dira. Ekitaldira euskal arropaz jantzita joateko eskaera egin du Lagatzuk, aurreko urteetan bezala.

Lagatzu Eguneko antzerkian parte-hartzeko:

lagatzu@lagatzu.org

94 452 34 47 / 645 73 88 45

Lagatzuko lokalean (Aresti kalea, 2)

Lagatzuko kideari esan



a: Idoia Andrés

Lezamako trenbide zaharraren aldeko martxa

Hura maiatzaren 22an egin zuten, Txirrin Txirrin, Bizi Txorierri, Gailurra eta RK abentura taldeek antolatuta. Aurreko urteetan bezala, ekitaldiak trenbide zaharraren ibilbidea berreskuratzeko eskatzea eduki du helburu.

Mendi martxari Guggenheim museoan eman zioten hasiera, eta handik gora Artxandako antzinako geltokira abiatu ziren. Pikerako bidea hartu eta mendian barrena sartu ziren, harik eta tunelera ailegatu ziren arte. Azaldutakoaren arabera, tunela nahiko lokaztuta dago, eta Bilboko sarrera guztiz urpean. Lehenengo 300 metro oinez egin zituzten, kontu handiz, eta amaierako zatia, piraguaz. Handik Artxandako geltoki zaharrera abiatu ziren berriro. Ekitaldiari amaiera emateko, antolatzaileek hamaiketako eskaini zieten parte-hartzaileei.

Global Training bekak

Beka horiek unibertsitateko tituluak dutenei zein goi-mailako ikasketak dituztenei daude zuzenduta, eta hauek kudeatzen dituzte: Politeknika Ikastegia Txorierri, Adegia, Confebask eta Hetel. Beka lortzen dutenek munduko edozein herritan ordaindutako praktikak egiteko aukera edukiko dute, eta gutxienez sei hilabete emango dituzte bertan. Global Training bekak eskatzeko epea ekainaren 30era arte egongo da zabalik www.global-go.net webgunean.

Orkatx Alberdi lezamarra Global Training beka lortu eta Tecnaliak Kolonbian duen egoitzan dabil praktikak egiten. "Zorte handia eduki dut. Halako gauza bat bizitzea oso aberasgarria da. Lan arloan lor dezakezun esperientzia ona da, baina, nire ustez, gehien aberasten duena oso kultura ezberdin batean murgiltzea da".

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragotti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06



Hegalariak, 20 urte

Hegalariak Sondikako areto-futbol taldeak 20 urte bete ditu aurten, eta urteurrenaren haritik ospakizun batzuk egingo ditu datozen asteotan. Esate baterako, ekainaren 4an, taldeko jokalariek partida bat jokatuko dute euren artean. Ostean, poteoa egingo dute Sondikatik. Poteoak helburu bikoitza du: bate-tik, taldekideak eta senideak elkarrekin ondo pasatzea; bestetik, eskerrak eman nahi dizkiete atxikimendua azaldu edo diru-laguntzaren bat eman dieten taberna eta dendariei. Eta haiei, hain zuzen ere, opari bana emango diete.

Era berean, betiko moduan, txosna jarriko dute Sondikako San Joan jaietan, eta bertan, ekainaren 26an, ekitaldi batzuk egingo dituzte: denboraldiko onenak aukeratu, sariak banatu, hitzaldi bat eskaini... Sorpresaz betetako eguna prestatu dute. Azkenik, uztailaren 16an, frontenis maratoia antolatu dute Larrondon eta Sondikan. Hegalariak taldeak Txorierriko areto-futbol talderik adintsuenetarikoa da eta gaur egun Lurraldeko Lehenatasuneko mailan jokatzeko du. Iaz, igoera lortu zuten eta, aurten, bosgarren postuan bukatu dute liga.

Akordeoia, hurbilago

Pentagrama Sondikako Kultura Elkar-teak ateak zabaltzeko eguna antolatu du aurten, lehenengo aldiz, akordeoia herri-tarregana hurbiltzeko. "Egun honen helburua jendeak gu hurbiletik ezagutzea da", esan digu Yolanda Ugarte zuzendar-riak. "Nahi dugu izan dezaten gure lana-ren berri eta jakin dezaten zer den orkes-tra bat eta, noski, zelako instrumentua den akordeoia, nondik datorren, zerez egina dagoen, zelan jotzen den...".

Horretarako, elkarreragitea nagusi izan zen ekitaldi bat antolatu zuten. "Publikoarekin zuzeneko harremana eduki nahi izan dugu. Ekitaldiari amaiera emateko, adibidez, perkusiozko instrumen-tuak banatu ditugu haien artean, eta gurekin batera jo dute Athleticen him-noa. Oso dibertigarria izan da eta jendea-

ri asko gustatu zaio". Horrezaz gainera, beste abesti batzuk ere jo zituzten ekital-dian zehar, hala nola Leonard Cohenen *Hallelujah*, Melendiren *Caminando por la vida* eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Maite zaitut*. Era berean, akor-deoiaren gaineko gakoak azaldu zituzten eta zalantzak argitu zituzten.

Trebetasun berezirik eduki behar da akordeoian hasteko? "Jotzeko gogoia iza-tea da baldintza bakarra. Eguneroko lana da. Praktikatu egin behar da, eta interesa eta ilusioa duen jendeak lortu egiten du". Yolandaren esanetan, akordeoia edonora eraman daiteke, eta, gainera, ez du beste instrumentu baten laguntzarik behar musika behar bezala jotzeko. "Oso instru-mentu alaia da eta jendeari asko gusta-tzen zaio".



Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 05 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 26 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

KAFETEGIA

IAZI JATETKEA



Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK


Gurbi-ikusiak, eskuak
Auzoaren kumutatuak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulgarak eta lokalkak
Orru amaiariko garbiketa
Ikusketak
Zabur bilaka

Besside Plaza, 1 - B^a Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA



MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarri itxiguru Facebook-en

HARAGITEGIA
URDITEGIA
IMAZ



MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Esmerik asko
etortzeagaitik



BIZKARGI EGUNA.– Urtero bezala, maiatzaren 8an, jendetza batu zen Bizkargi mendian, Gerra Zibilean bertan izandako batailan hil ziren gudariak omentzeko eta ospakizuna egiteko.
a: Idoia Andrés

Athleticeko neska lezamarrak, txakolinaren enbaxadoreak

Amaia Olabarrieta, Joana Flaviano, Leia Zarate eta Sara Barbosa dira neska horiek. Eta ekainaren 5ean izendatuko dituzte enbaxadore, Lezamako Txakolinaren Egunean bertan. Txakolinaren Eguna hamabosgarren aldiz ospatuko dute, 11:00etatik 17:00etara. Herriko eta eskualdeko sei upeltegik ipiniko dute postua azokan, Garkalde, Magalarte, Basalbeiti, Erdikoetxe, Sasine eta



Sasinek jasoko du oroitzapenezko plaka.

Bitxia, eta Bizkaiko Txakolinaren 2015eko uztia dastatzeko aukera egongo da. Kopak eta txartelak udal postuan eskuratu ahal izango dira. Bertoko produktuak ere izango dira ikusgai eta erosgai: eztia, gazta, barazkiak, euskal pastela, loreak, kontserbak... Kurutze dantza taldea kalejiran irtengo da 11:30ean, eta umeek dantzen agerraldia eskainiko dute 11:45ean, frontoian.

Umeentzako tailerrak antolatu dira eta Saretzen elkarateak umeentzako bizikleta bat zozketatuko du. Bestalde, hau ere Saretzen elkaratearen eskutik, hanburgesa txikiak eskainiko dira 12:30etik aurrera. Azokaren hasiera ofiziala 12:45etan izango da. Kortxoa atera, brindisa egin eta Lezamako txakolinaren 2016. urterako enbaxadoreak izendatuko dituzte. Bestetik, oroitzapenezko plaka emango diote Sasine txakolinari. Ekitaldi ostean, bertso saio bat egingo da, eta 15:00etatik aurrera, berbena Lotxo taldearekin.

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, beheka - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORRIERRIKO ELUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEKA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



Malen Amenabar, Udagoieneko fasera

Malen Amenabar Larrañaga larrabetzuarrak Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko fasearen azken kanporaketa irabazi du eta, beraz, Udagoieneko faserako sailkatu da. Udabarriko fasearen azken saioa Fadura kiroldegian jokatu zen maiatzaren 22an, giro ederrean. Malenekin batera, beste bertsolari hauek aritu ziren: Aitor Ruiz Urizar, Igor Menika Bengoetxea, Inazio Vidal Gurrutxaga, Joseba Barandiaran Andueza eta Julen Erezuma Arzanegi. Larrabetzuko neskak 183 puntu lortu zituen. Udagoieneko fasean 30 bertsolari arituko dira bat-batean. 2014. urtean finalistak izan zirenak finalurrekoetan sartuko dira txapelketan.

Jubilatuak omenezko jaia Lauroetan

Aspaldiko ohiturari jarraituz, aurtengo ere Jubilatuen Eguna ospatuko dute Lauroetan. Jaia ekainaren 12an egingo dute 25. aldiz. Goizeko 12:00etan meza edukiko dute eta, ostean, kopaua, bertsolariek eta trikitilariek girotuta. Bazkaria Aurregoiti jatetxean izango da. Bazkariak 30 euro balio du eta izena tabernan bertan eman daiteke. Era berean, telefono hauek deitu daitezke: 94 453 17 18 (Iñaki) eta 94 453 37 86 (Juanxu). Jubilatuak gonbidatuta daude. Bazkaldu ostean, Etxahun Lekue eta Mikel Mendizabal bertsolariak arituko dira bat-batean. Trikitilariak ere egongo dira.

Eatonen ez dute akordiorik lortu

Enpresa batzordearen eta zuzendari-tzaren arteko bileren ostean, Aikor! al-dizkariaren ale hau itxi orduko jakinarazi digutenaren arabera, Derioko Eaton lantegian ez dute akordiorik lortu. Enpresak indemnizazioen zenbatekoa igo du berriro, eta 40 hilabete eta hilabeteko 45 egun ordaintzeko prest azaldu da. Gainera, zenbateko horri 5.000 euro gehitu dio. Era berean, soldata garbiaren % 80ko urteko errenta ordaintzeko proposamena egin du, eta horrek urtean % 0,5eko eguneratzea izango luke. Indemnizazio-baldintzak 2020. urteko abenduaren 31ra arte indarrean egongo direla adierazi dute, eta lan markatuan berriro sartzeko bederatzi hilabeteko plan bat eskaini die langile kalte-tuei. Bestalde, eta enpresa batzordetik aipatutakoaren arabera, aurre-erretiroak 63 urte bete arte mantentzeko asmoa dutela jakinarazi dute, "baina, bestetik, enpresan geldituko diren langileen etorkizunari eta baldintzei buruz ez dute ezer esan. Aurreko bilera batean, eta lantegiaren etorkizuna bermatzeko asmoz, inbertitzaileak topatzeko proposamena egin diegu, bai-

na erantzun digute inbertitzaile horiek ez dutela konpetentziakoak izan behar". Enpresa batzordetik esan digute ez dutela uste datozen egunotan funtsezko aldatetarik egongo denik. "Aste bi ditugu proposamen guztiak sakon aztertzeko eta, aldatetarik egon ezean, gaia auzitara eramango dugun ere aztertzeko".

Eatoneko langileek greba mugagabe-ari ekin zioten apirilaren 27an, enpresak 39 langile kaleratu eta lan erroretako bat Errumaniara eramateko asmoa zuela jakinarazi ostean. Egutero enpresaren sarre-
ran batzen dira eta, esan digutenez, nekakuta daude, baina beren lana defendatzeko asmo tinkoa dute. Hala, besteak beste, bilerak egin dituzte Eusko Jaur-laritzaile eta Foru Aldundiko ordezkari-ekin, eta Derioko alkatearekin ere elkartu dira. Maiatzaren 15ean, manifestazioa egin zuten Derion, eta herritar askoren atxiki-mendua jaso zuten bertan. Autoz ere irten dira Txorierri-
tik eta Mungiatik, beren egoera salatzeko. Halaber, Txorierriko udaleetan Eatoneko langileen aldeko mozioak onartu dira.



 **HAUR-MODA**
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

 **EGUNEKO MENUA**
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogin
edatila **9€**
Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Jatetxea **SAN ISIDRO**
EUSKO ORELETAN ESPECIALIZATUA ETA ETXKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 99 Fax 94 454 14 18
Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO



Eihar Astobieta Lakontza | Mugimenduaren edertasunean itsu

Loiuko Udalak parkeetan ipinitako barandak erabiltzen dituzten horietako bat da Eihar, baina ñabardura batekin: ez du inolako mantentze ariketarik egiten, kalistenia baizik. Bestelako kirolek garrantzia potentziari eta ahaleginari ematen dioten bitartean, kalistenia (*calisthenics*, ingelesez) gihar taldeetan zentratzen den ariketa fisikoa da. *Kallos* hitzak edertasuna esan nahi du grekoz, eta *Sthenos* hitzak, indarra. Hitz konposatuaren esanahia "gorputzak mugimenduan daukan edertasuna" da. Loiura heldu zenetik, Bilbao Calisthenics Team-eko kideak ordubete ematen du egunero ariketa hori bertako kirol instalazioetan egiten, jarduera horretarako egokienak izan ez arren. "Loiuko ekipamendua ez dago kalistenia egiteko doiturik, baina momentuz hemen dagoenarekin egin beharko dut aurrera".

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com – facebook.com/atomikastudio

Kemena.

Zure negozioaren bultzada

Publizitatea
eta eduki kreatiboak





✉ info@atomikastudio.com www.atomikastudio.com

“Istorio-kontalaria naiz”

t: Gaizka Eguzkitza / a: Sushi Maky

Zer da *Beti oporretan* liburua?

Ipuin bilduma da. Gurari ezinezko bat islatzen dut, beti ezin delako oporretan egon. Keinu ironiko bat botatzen diot beti lanean dabilen idazle autonomoari, eta noski, neure buruari. Aitortu behar da Xabier Montoiak duela 20 urte argitaratutako diskoari izenburua lapurtu diodala. Era berean, berak 1980an Jim Jarmuschek zuzendutako *Permanent vacation* filmetik hartu zuen. Beraz, lapurrak lapurri lapurtutako titulua (kar, kar). Michael Radforden *Postaria eta Pablo Neruda* filmean ondo azaltzen zen. Postariak Nerudaren poemak erabiltzen zituen neska konkistatzeko, eta horregatik haserretzen zen poeta. Baina postariak ondo adierazten zuen moduan, poemak ez dira idazten dituenarenak, behar dituenarenak baizik. Beraz, denok gara lapurrak.

Izenburuak, *Beti oporretan*, iradokitzen du ipuin gozoak izango direla, baina ez dira inondik inora horrelakoak, ezta?

Bai, ipuinen atmosferak Mediterraneoan eta oporraldiko lekuetan kokatzen gaitu: hondartzan, kostaldean... Hala ere, azpitik badago zerbait ilunaren susmoa. Oporrak dira zoriontsuak izatera goazen garaia edo lekua, baina askotan ez dugu zoriontsuak izatea lortzen.

Zure ibilbideari erreparatuz, zer dakar berri liburu honek?

Ezberdina da, gai edo giro bat, oporraldiak alegia, ipuin guztien ardatz nagusia delako. Bilduma itxiagoa egin nahi nuen, estilo biluziagoa zuena. Nire idazteko era nahiko digresiboa da, hau da, askotan haria galtzen dudala ematen du, baina oraingo liburu honetan ez dut horrelakorik egin nahi izan.

Zure liburuak hainbat hizkuntzatarantz itzuli dira eta gaztelaniaz askotan zuk zeuk egin dituzu itzulpenak. Zaila da hori?

Ni kasualitatez hasi nintzen neure buruari itzulpenak egiten, beste batek egiteko dirurik ez zegoelako. Nahiko arrazoi prosaikoengatik, beraz. Batzuetan polita da itzulpena zuk zeuk egitea, esate baterako materiala oso sentibera denean eta

HARKAITZ CANO | idazlea

Musikari frustratua dela aitortu du eta, agian, irakurleok eskerrak eman beharko genizkioke, idazle dotorea delako. Harkaitz Canok *Beti oporretan* (Susa) bere azken eleberria aurkeztu du Larrabetzun. Bera, ez; bera beti dabil lanean, hau da, istorioak kontatzen.



poesiak jolasteko aukera ematen dizunean. Ameriketako filmetan ikasleek igelari sabela irekitzen diote biologia klasean. Auto itzulpenak egiten ditudanean, ni igel hori izango banintz moduan sentitzen naiz. Alde batetik, zure buruari itzulpenak egitea ondo dago, asko ikasten duzulako eta zeure burua hobeto ezagu-

tzen duzulako. Baina, bestetik, zaila da: itxiztat jotzen duzun gauza bat berriro ireki behar duzu eta horrek masokismo puntu bat dauka.

Zure lana aintzat hartzen da, alde batetik zure liburuak hainbat hizkuntzatarantz itzuli direlako eta bestetik, sari batzuk jaso dituzulako. Zelan daramazu ospea?

Tira, Xabi Alonso futbolaria da ospe-tsua. Ni, ez. Gure ospea etxean ibiltzeko zapatilak modukoa da. Eta eskerrak! Polita da besteek zure lana aintzat hartzea, zelan ez. Eta ez pentsa salmentari buruz hitz egiten ari naizela. Adibide bat jarriko dizuet: maiatzean, Ricardo Arregi eta biok Polonian egon ginen bertan gure liburu bana argitara eramango dutelako. Liburu biak duela 20 urte idatzi geni-

“Oporrak dira
zoriontsuak izatera
goazen lekua,
baina askotan ez
dugu hori lortzen”

*"Thelonious Monken
moduan pianoa
jotzen jakingo banu,
ziurrenik ez nuke lerro
bat ere idatziko"*

tuen. Ederra da hainbeste denbora pasatu eta gero, hizkuntz arrotz batean zure liburua argitaratzea.

Hainbat arlotan idatzi duzu: musika, komikia, nobela... Zeinetan zaude erosoan?

Bakoitzak baditu bere berezitasunak. Ez dauka zerikusirik gidoi, kanta edo komikia idazteak. Bakoitzak lan egiteko modu ezberdina eskatzen dizu. Ni istorio-kontalaria naiz eta niri berdin zait estiloa, erregistroa... Nik obsesioak besteekin konpartitzen ditut eta hori oso osasungarria da. Arloren bat aukeratu behar badut, ziur asko ipuina aukeratu nuke. Alde batetik, ipuina izan delako ni literaturara ekarri nauena. Eta bestetik, azken batean, ipuinak literaturaren arlo guztietan dardelako; esate baterako, eleberririk luzatu diren ipuinak dira, eta kantak, ipuin labur-laburrak.

Eta zergatik hainbeste estilo aldatu? Ez dizu horrek espezialista izateko aukera kentzen?

Bai, ez naiz espezialista izango, baina ikuspuntu zabalagoa dut. Nire izaera

Erabilera anitzeko idazlea

Harkaitz Canok (Lasarte, 1975) Zuzenbidea ikasi zuen, baina ez da inoiz abokatua izan, idazlea baizik. Harkaitzek hainbat arlotan idatzi du: poesia, komikia, ipuina, eleberria, telebistarako gidoiak... Musikariekin ere egin ditu kolaborazioak: esate baterako, Ken Zazpi eta Oskorri taldeak, eta Sorkun. Birritan irabazi du Euskadi Saria eta beste bi aldiz Espainiako Kritikarena. Bere liburuak zenbait hizkuntzara itzuli dira: nederlandera, galegoa, greziera, ingelesa, gaztelania, errusiera, alemana eta italiera.

horrelakoa da: aspertuko nintzateke bakarrik eleberririk idatziko banitu. Kantak edo komikiak idazten dituzunean asko ikasten duzu eta horrek aldatu egiten du zure idazteko era. Ziur nago eragina horri esker eleberririk ezberdinak idatzi ditudana nire ibilbidean zehar. Askotan pentsatu dut horren inguruan: euskal idazlea naiz eta halabeharrez egin behar dut lan hainbat arlotan. Bestela, nekez bizi ahal izango nintzateke eleberririk idazte hutsetik.

Irakurri dut musikari frustaturtat hartzen duzula zeure burua...

Bai, Thelonious Monken moduan pianoa jotzen jakingo banu, ziurrenik ez



nuke lerro bat ere idatziko. Tertulia batean, irratian, galdetu ziguten zein zen arterik gorena. Ezin da aukeratu, baina, nire ustez, musikak izugarritzko abantaila du: fisika bera. Hau da, musika uhinak dira, eta horiek leku eta kultura guztietan ulerzen dira. Musika osatzen duten uhinek eragin egiten dute, atzean ariketa intelektualik ez dagoelako, behintzat hasieran. Eta horren kontra literatura ezin da lehian sartu, literaturak prozesu intelektuala eskatzen duelako. Pianoa jotzen ikasten saiatu nintzen, baina tamalez taldetik bota ninduten (kar, kar). Orain musikariekin egiten ditut kolaborazioak eta horrekin konformatu behar naiz.



**BIO
TERRA
2016**
13. EDIZIOA

GONBIDAPENA

Sarearen prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohain)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

Ekainaren 3tik 5era

- 3 pabiloi tematiko
- Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- Osasun eta ongizate jasagarria
- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoeekin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

EKO esperientzia bizi ezazu!
bioterra.ficoba.org

gonbidapen hau martxo eta azokaren sartzen gurekin

P
dohainik

Ficobara, zator trenean!
www.brun-ficoba.geltokia

euskotren

ANTOLATZAILEA

FICOB A
IRUN - GIPIZKOA
www.ficoba.org

“Mugikorra beti eramaten dut soinean”

IGONE REGIDOR GARCÍA DE ALBENIZ | itzultzailea

Hogeita bederatzi urteko lezamar honek hizkuntzarekin egiten du lan. Hizkuntzarekin eta haren zuzentasunarekin, azaldu digunez, itzulpena ez da edonola egin daitekeen gauza; adierazteko erarik egokiena topatu behar da beti.



t/a: Itxaso Marina

Zelako lanak egiten dituzu?

Itzulpenak eta zuzenketak, berrikuspenak. Webguneak berraztertu ere egiten ditut, testu guztiak itzulita dauden ziurtatzeko, irudien barruan dauden testuak ondo daudela egiaztatzeko... Trans-

kripzioak ere egiten ditut, baina gutxitan. Zerbitzuak lau hizkuntzatan eskaintzen ditut: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta alemanez. Itzulpenak euskarara edo gaztelaniara egiten ditut beti; adibidez, alemanezko testu bat hartu eta euskaratu. Gaztelaniazko eta ingelesezko testu ofizialak itzultzeko titulua ere badaukat.

Zein hizkuntzatan da zailagoa itzulpenak egitea?

Nik alemanarekin dut zailtasun gehien, baina testuaren arabera izaten da hori, nork idatzi duen...

Eta gaiaren edo arloaren arabera, ezta?

Jakina! Nik denetarik itzuli ditut: marketiko testuak, jantziei buruzkoak, ekonomikoak, sustapen kanpainak... Baiezkoa eman baino lehen, bezeroari beti eskatzen diot testua begiratzen uzteko, badaezpada... Eta denbora nahikoa badaukat, gustatzen zait Interneten eta liburutegietan begiratzea, itzulpenak eginez asko ikasten dudalako. Testu ekonomikoak itzultzeko orduan, esate baterako, zailtasun handiak izan ditut, testua ulertu arren, hura beste hizkuntza batean adierazteko modu zuzena jakin behar delako. Baita hiztegi pilo bat ere.

Aspergarria da?

Izan daiteke. Testu astunak direnean edo bezero bakar batentzat lan egiten denean. Eta testu errazegiak badira, ez dagoelako erronkarik. Horregatik esan dut lehen ikerketan ibiltzea gustatzen zaidala.

Turismotik Itzulpengintzara

Hizkuntzak izugarri gustatzen zaizkio Igoneri, betidanik, eta horregatik erabaki zuen hizkuntzari lotutako ikasketak egitea. Hala, Turismo ikasi zuen Deustun, eta handik itzulpengintzara eman zuen saltoa. “Hotel batean egin dut lan eta, egia esateko, turismo lanaren falta sumatzen dut, ordutegiak baxter onak ez diren arren. Izan ere, pilo bat gustatzen zait jendearekiko harremana. Horregatik, ahal dudan heinean eta autonomo moduan, saiatzen naiz etxetik irteten eta jendearekin harremanetan egoten”.

Itzulpengintza Madrilén ikasi zuen eta beka bati esker urte bi eman zituen Alemaniako institutu batean. “Laguntzaile ibili nintzen, gaztelaniaz. Alemana ere ikasi nuen”. Etxera itzuli eta master bat egin zuen Castellón. Eta masterraren praktikak, Madrilén. “Gauza pilo bat ikasi dut. Nire ustez, oso garrantzitsua da kanpora irtetea eta jende berria eta ohitura berriak ezagutzea. Lana bakarrik egiten dudanetik ere asko ikasi dut. Izan ere, gauza pilo bat hartu behar dira kontuan. Batzuetan gehiegi dela dirudi, baina asko laguntzen du horrek”.

*"Gustatzen zait
Interneten eta
liburuetan begiratzea,
itzulpenak eginez asko
ikasten dudalako"*

Irudia ezinbestekoa da enpresarako; itzulpen egokia?

Itzultzaileok beti esaten dugu gure lana ez dela baloratzen. Izan ere, jendeak ez dio garrantzirik ematen testuak ondo idazteari. Baina ni, esate baterako, jabetxe batera banoa eta kartan-edo akatsik ikusten badut, beti jakinarazten diot arduradunari. Itzulpena ezin da edozein modutan egin; ondo egin behar da. Gainera, eragin zuzena du negozioaren irudian.

Kontziente gara?

Ez. Gertatu zait testu batean akatsa topatzea, beste batekin komentatu eta hark esatea: "Baina, beno, horiek txikieriak dira". Ba, niretzat inportantea da, hizkuntzarekin lan egiten dudalako. Euskararen kasua da batez ere berezia, jendeak ez diolako garrantzirik ematen. Madrilen bizi nintzela, askok esan didate euskarak ez duela merezi, gutxi batzuek baino ez dutelako hitz egiten. Ba, ni ez nago ados eta saiatzen naiz itzulpengintzaren bidez uste hori aldatzen. Baina hori guztion ardura da, gizarte osoarena. Garrantzi handiagoa eman beharko genioke geure hizkuntzari.

*"Itzulpena ezin da
edozein modutan egin;
ondo egin behar da.
Eragina zuzena du
negozioaren irudian"*

Zelan dago itzulpengintza munda?

Lana badago, baina, esan bezala, gure lana ez da behar bezala baloratzen eta oso gaizki ordaintzen da. Lehia ere handia da: zuk egiten ez baduzu, beste batek egingo du. Ez da erraza.

Autonomoa egitea erabaki zenuen orain dela urte bi, bere alde onekin eta txarrekin...

Neu naiz neure nagusia, eta neuk antolatzen dut neure lana. Ondorioz, lana ondo egitea are garrantzitsuagoa da, ondorioak neuretzat direlako. Alde txarrak ditu, noski: ordutegi finkorik ez izatea, nahiz eta atsedenaldira eta errespetatzen saiatzen naizen arren; diru sarrera gutxi egotea; bezeroak topatu behar izatea, lana ez datorrelako berez...

Non bilatzen duzu?

Interneten itzultzaile talde asko daude, eta ezagunek eta enpresek haien bidez argitaratzen dituzte eskaintzak. Lana neure webgunearen bitartez ere ailegatzten zait, gizarte sareen bitartez... Ezagunek ere euren garrantzia dute, jendeak azkenean ahoz ahokoari esker ezagutzen

zaituelako. Ordenagailuarekin eta hiztegiekin egiten dut lan, baina beti eramaten dut mugikorra soinean, badaezpada ere deirik balego. Esaldiak itzultzeko ere erabiltzen dut.

Norentzat egiten duzu lan?

Hiru bezero mota daude: partikularrak, enpresak eta agentziak. Azken horiek bezero potoloak dira. Gure sektorearen araua da, kalitatea eskaintzeko, testuak birritan aztertu behar direla. Beraz, agentziatik testuak itzultzeko etortzen zaizkit, edota beste batek itzuli duena neuk berrikusteko.

Libururik itzuli duzu?

Ez, nahiz eta inoiz pentsatu dudan. Ondo legoke gazteentzako libururen bat itzultzea, irakurzaletasuna eta euskarazko testuak sustatzeko. Baina horretarako, beste guztia utzi beharko nuke albo batera, eta orain oso lanpetuta nabil.

Zer gustatuko litzazuke etorkizunari begira?

Momentuz horrela jarraitu nahi dut, baina pentsatuko dut etorkizunean bulego bat alokatzea, edo batzuen artean enpresa bat sortzea.

igoneregidor.com

*"Garrantzi handiagoa
eman beharko genioke
euskarari. Guztion
ardura da hori"*



Hemen prestakuntzak lana dakar berarekin



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Heziketarako Ikastetxea

Uztzagale Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierri.net
48100 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 81 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- * Mekanizazio teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- * Produzioaren Programazio goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- * Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- * Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- * Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- * Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)



Indarkeria sexista prebenitzeko tailerrak, institutuan



a: higherperspectives.com

Indarkeria sexista ez da bakarrik bikotearen baitan gertatzen den arazo isolatua. Bestea mendean hartzeko estrategia bat da, jokabide sistematiko bat, eta maitasun erromantikoari buruzko mitoak ditu oinarrian, bikoteei eta harremanei buruzko alde aurretik pentsatutako ideiak direnak eta gure gizartean sustrai sakonak dituztenak. Nerabe askorentzat, indarkeria sexistaren oinarria eta abiapuntua diren zenbait jokabide (jeloskortasuna eta gehiegizko kontrola, esate baterako) bikotekidearen maitasunaren eta arduren ikur dira, eta ez dituzte jarri horiek arazoaren hasiera gisa ikusten.

Hori dela eta, indarkeria mota guztiak eta, bereziki, indarkeria sexista prebenitzeko eman beharreko lehenengo urratsa berdintasunean hezte da. Gazteek jakin behar dute erasoak ez direla inoiz normalak, eta elkar errespetatzea eta baloratzea ezinbesteko baldintza dela maitasun-harreman batean. Mankomunitateak tailer batzuk antolatu ditu institutuko DBH 1, 2 eta 3ko ikasleentzat. Tailer horiek ikasleen adinera egokituta egon dira, eta indarkeria sexista prebenitzeko eduki dute helburu.

Tailerrak

Dinamika parte-hartzaileen, eztabaiden eta jolasen bitartez, ikasleek harreman toxikoak nola identifikatu ikasi dute, edonor egon baitaiteke horrelako harreman batean, eta horren aurrean nola jokatu ikasi dute. Hauek dira tailerretan landutako gaiak:

- Kontrola eta boterea harremanetan.
- Maitasun-harremanei buruzko uste okerrak, mitoak eta estereotipoak.
- Zer dira maitasun-harreman osasuntsuak?
- Harremanen baitan ohikoak diren gatazkak konpontzeko gaitasunak.
- Zer da indarkeria sexista? Motak.
- Indarkeria sexistaren jokaerak eta jarriak.
- Zer egin indarkeria sexista egoera baten aurrean? Nola egin aurre horri?
- Tolerantziarik ez: norberaren eta taldearen konpromisoa.

Ebaluazio orokorra

Talde guztien parte-hartzea oso positiboa izan da, eta jarrera aktiboa izan dute. Neskak izan dira komentario erabilgarri gehien egin dituztenak; alabaina, mutilak ere adi-adi egon dira eta parte-hartze

Gazteek jakin behar dute elkar errespetatzea ezinbesteko baldintza dela maitasun-harreman batean

handia eduki dute. Oro har, hauteman da, indarkeria fisikotik eta, kasu batzuetan, psikologikotik haratago, ikasle gehienek zailtasunak dituztela indarkeria ikusteko, klase bakoitzeko bi edo hiru ikasleren kasuan izan ezik. Horiek gai izan dira beste adibide batzuk emateko, esaterako soldaten arteko alde edo “maskulinoa” denak “femeninoa” dena baino balio handiagoa izatea. Gainerako ikasleek hasieran zailtasunak izan dituzte horretaz jabetzeko.

Ikasgela gehienetan, hasiera batean ikasleek esan dute emakume batzuek gizonen kontra egiten duten indarkeria ere genero-indarkeria dela, logika hau erabiliz: “gizonek emakumeak jotzen dituztenean genero-indarkeria bada, emakumeek gizonak erasotzean ere genero-indarkeria izango da”. Oro har, uste hori argitu egin da saioek aurrera egin ahala.

Zer da harreman osasuntsua?

–Harremana da bi pertsonak elkar maite eta errespetatzen dutenean, eta elkarrekin gozatzen dutenean.

–Elkar onartzea da, beste pertsona maitatzea, eta dauzkan dohainak eta akatsak onartzea.

–Elkar ondo tratatzea da, maitasunez eta errespetuz.

–Beste pertsona entzuten jakitea da, eta zeure arazoak, kezkak eta nahiak besteari kontatu ahal izatea.

–Elkarrengan konfiantza izatea da, eta ez bikotekideak egiten edo esaten duena egia den egiaztatzea.

–Ikuspuntu desberdinak izatea, eta horiei buruz bata edo besteak bere iritzia inposatu gabe hitz egin ahal izatea da.



GAZTEEK TAILERREI BURUZ DUTEN IRITZIA

Nire ustez, tailerra erabilgarria izan da geure burua pertsona moduan eta, batez ere, neska moduan, hobeto baloratzeko.

Pertsona bakoitzak eskubidea du nahi duen bezalakoa izateko, estereotipoek inposatzen dutenaren gainetik.

Kontrola bikotearen baitako indarkeria mota bat da.

Ikasi dut indarkeria ez dela soilik jotzea; bikotekidea berdintasunez ez tratatzera bultzatzen gaituzten estereotipoak errepikatzea ere indarkeria da.

Konturatzen ez bagara ere, gure jarreretako asko matxistak dira.

Neure buruari balio handiagoa eman behar diot.

Estereotipoen eraginez jarrera matxista ugari ditugu (esaterako, piropoak esatea eta kontrola).

Mutilek modu batera ikasten dutenez eta neskek beste batera, azkenean izateko eta egiteko modu desberdinak izango ditugu, eta hori aldatzea zaila da, baina egin beharreko zerbait da.

Jeloskortasuna kontrol mota bat da, eta kontrola jeloskortasunaren bitartez egiten da. Bi horiek kaltegarriak dira harremanetan.

–Elkarrekin esperientziak eta uneak partekatzea da; norberarentzako denbora eta espazioa eduki ahal izatea, lagunekin edo familiarekin egoteko, edo zaletasunen batez gozatu ahal izateko, eta gure bikotekideari gauza bera egiteko aukera ematea.

–Askatasun osoz gure iritzia eman ahal izatea da, gure bikotekidea esaten dugunagatik haserretuko ote den beldurrez edo zerbait debekatuko ote digun beldurrez egon gabe.

–Nire bikotekidearen ahalegina eta lana baloratzeko da.

–Inork ere bere nahia inposatzen ez duenean da.

–Beste pertsonaren iritzi, gustu, jarduera eta lagunak onartzea eta errespetatzea da.

–Plan eta proiektuetan elkarri laguntzea eta lankidetzan jardutea da, nahiz eta horiek beti bat ez datozen.

–Erabaki batean ados egoteko bultzuetan amore eman behar dela ulertzea da.

–Biongan eragina duten erabakiak elkarrekin adostea da.

Mila pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte osasunaren aldeko lasterketan eta martxan

Txorierriko Mankomunitateko Eskuhartze Komunitarioko Zerbitzuak osasunaren aldeko lasterketa-martxa egin zuen apirilaren 17an, Larrabetzu eta Lezama herrien artean. Hirugarren martxa honekin, 1.300 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte (% 45,1 gizonak; eta % 54,9 emakumeak). 2014an, 406 partaide izan ziren; eta 2015ean, berriz, 635. Partaide gehienek, % 46,6k, 10 kilometroko martxa egin zuten; % 45,8k, sei kilometroko martxa txikia; eta gainontzekoek, % 7,6k, lasterketa. Jatorriari dagokionez, gehienak, % 67, Txorierrikoak izan ziren (% 13, Larrabetzukoak; eta % 27, Lezamakoak). Guztira, 5.907, 20 euro bildu ziren eta dirua elkarte hauei emango zaie: AprendeTEA, Aspace, Cornelia de Lange eta Garmitxa.

Azeri Natura Guztiontzat kooperatiba ere elkarlanean aritu zen Mankomunitatearekin, eta, haiei esker, Aspace elkartearen



ren erabiltzaile batek sei kilometroko ibilbidea egin ahal izan zuen aulki egokitu batean. Halaber, Gorabide elkarteak ura

banatu zuen helmugan. Mankomunitateak eskerrak eman nahi dizkie boluntario eta elkarte guztiei, egindako lanagatik.

“Saskibaloiak zorion handia ekarri digu”

AURRETARRAK | saskibaloian murgildutako familia

Alex, Maite, Naiara, Jone eta Nerea dira aurretarrak. Familia bitxia da, guztiak talde berean dabilatzalako, Loiola Indautxun: aita entrenatzailea da; ama, delegatua; eta alabak, jokalaria. Loiuztarrak saskibaloia inguruan bizi dira.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Alex Aurre da aita. Bera 12 urte zituela hasi zen saskibaloian jokatzeko, Derioko institututan, Carmelo Etxebarriaren eskutik. “Futboleko jokatzeko asmoa nuen, baina urte horretan legedia aldatu zuten eta ezin izan nuen jokatu, gazteegia nintzelako. Beraz, saskibaloian hasi nintzen”, esan digu. Jakin barik, ziur asko, erabaki horrek bere bizitza osoa aldatu zuen. Institututik Maristas ikastetxera joan zen eta handik, Patronato, Cajabilbao eta A Coruña taldeetara.

Alexek bigarren mailan baino ez zuen jokatzeko aukerarik izan, eta 26 urte zituela utzi zion jokatzeari. “Nahiko gazte utzi nuen, baina saskibaloia ez zen batere egonkorra. Alde batetik, Naiara jaio zen; eta bestetik, nahiz eta soldata txarra ez izan, arazoak izan genituen A Coruña kobratzeko. Beraz, Bilbora etorri ginen eta laster erabat galdu genuen saskibaloiarekin genuen harremana”.

Hala ere, Alexek aitortu digunez, “saskibaloiak zorion handia ekarri digu”. Esate baterako, kirol honen bitartez ezagutu zuen Alexek emaztea. Maite Lecea ere saskibaloia jokalaria zen. Berak Kaixo taldean jokatzeko, garai hartako emakumezkoen talde nagusia Bizkaian. “Alexen eta bion taldeek areto berean, La Casillan, entrenatzen zuten eta egun batean jokari batzuk gelditu ginen taberna batean, saskibaloia partida bat ikusteko. Bertan ezagutu genuen elkar”, adierazi digu Maitek.

“Eskolan, neskak ez genuen aukera handirik kirola egiteko, eta ni saskibaloian hasi nintzen. Kirol horrek erabat

*Gurasoek saskibaloian
jokatzeko zuten
gaztetan, Estatuko
bigarren mailan,
hain zuten ere*

harrapatu ninduen!”, dio Maitek. Alexek berak aitortzen duen bezala, Maite familiaren jokalaririk onena da. Izan ere, 17 urte zituela Espainiako Txapelketa zoragarri bat jokatu zuen, eta ondorioz Espainiako selekzioaren lehen hautaketan sartu zen. “Entrenamendu batzuk egin nituen Madrilan, baina azkenean ez ninduten behin betiko zerrendan sartu. Dena dela, primeran pasatu nuen”.

Berriro saskibaloian

Maitek 21 urte zituela utzi behar izan zion jokatzeari, haurdun gelditu zelako. Eta Naiarari esker, hain zuzen ere, familia berriro murgildu zen saskibaloian. “Alabak 10 urte zituela esan zigun saskibaloian jokatu nahi zuela eta Irlandesas taldera, Leioara, eramanez genuen, bertan lagun bat nuelako. Hark ni ere entrenatzaile aritzea proposatu zidan, eta onartu egin nuen”, esan du Alexek.

Alaben artean, Naiara da maila altuean jokatu duena. Ahizpa nagusiak Estatuko emakumezkoen bigarren mailan jokatzeko zuten, baina horrek esfortzu handiegia eskatzen zion. “Bidaia oso luzeak ziren (Alacant eta Andorrara, esate baterako), entrenamendu asko, garai hartan



Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu Berrak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUS
hortz klinika

Txarriari elorbidak, 9 - Lortza | Artea erakina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazaindus.com | www.dentazaindus.com



RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Lotería Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

*Familia 2014an batu
zen Loiola Indautxu
taldean. "Oso eroso
da", dio amak*

*Naiara izan ezik,
familia osoa bizi da
Loiun, Landatxueta, eta
oso gustura gainera*

Magisteritza ikasten nenbilen... Beraz, urrats bat jaitea erabaki nuen eta Ibaizabal taldera joan nintzen, Galdakaora. Baina taldea igo egin zen eta ni berriro bigarren mailan jokatzeko prest ez nengoen, taldea utzi nuen". Kanpoan saskibaloian jokatzeko aukera ere izan zuen, baina Naiarak nahiago izan zuen karrera bukatu.

Galdakaoko taldea utzi zuenean, Naiarak Jonerekin egin zuen bat Irlandesas taldean. "Oso urte gogorra izan zen niretzat. Alde batetik, enpresa-ikasketak egiten hasi nintzelako eta kaskar ibili nintzen; eta bestetik, hainbat kirol arrazoi-rengatik: aurreko urtean jokatu barik ibili nintzen disko-hernia bategatik, entrenatzaile berria, maila berria... Denboraldi erdian utzi nuen", aipatu digu Jonek. "Bakarrik utzi ninduen (kar, kar)", leporatzen dio txantxetan Naiarak Joneri.

Hurrengo urtean, 2010ean, Jone hasi zen berriro saskibaloian jokatzeko. Izan ere, Loiola Indautxu taldera joan zen aitarekin eta Naiarekin. Ama ere sartu zen delegatu. Eta duela urte bi, senior mailan jokatzeko adina izan zuenean, Nerea, ahizpa txikia, fitxatu zuten Loiola Indautxurako. "Ni ia-ia oinez hasi baino lehen hasi nintzen saskibaloian jokatzeko. Naiara izan zen nire lehenengo entrenatzailea (kar, kar). Apur bat aspertuta nenbilen, partida guztietara joaten ginelako, eta nik ere jokatzeko erabaki nuen. Irlandesas taldean hasi nintzen, egokitzen zitzaidan baino urtebete lehenago", esan du Nereak.

Familia osoa Loiola Indautxu taldean batu zen. "Guztiok talde berean egotea

oso eroso eta lasaia da. Lehen, batek Galdakaon jokatzeko zuten, eta beste biek Leioan, baina talde ezberdinetan. Beraz, astebururako ibiltzen ginen erodoan, ikastetxe, herri eta partida batetik bestera. Eromena zen!", aipatu du Maitek. Era berean, Alexek eta Naiarak elkarrekin entrenatzen dute Loiola Indautxuko gazte taldea. "Azken hiru urteotan Espainiako Txapelketarako sailkatzea lortu dugu eta hori izugarritzako arrakasta da". Euskadiko gazte selekzioaren entrenatzaileak ere badira. "Gelditzen bagara, aspertu egiten gara! (kar, kar). Behin, txikitan, denboraldia bukatu zenean, Nereak galdetu zidan: eta orain zer egingo dugu?".

Familia, bananduta

Hala ere, familiaren batasuna datozen denboraldian apurtuko da, Naiarak utzi egingo diolako saskibaloian jokatzeari. "Hogeita bi urte daramatzat jokatzeko eta azken 12 urteotan ere entrenatzaile aritu naiz. Urte asko, entrenamendu eta partida asko... Nekatuta nago. Aitak dio uda pasatu eta gero faltan botako dudala eta itzuliko naizela, eta beharbada zuzen dago, baina momentu honetan atsedean hartu behar dut". Amak txalotu egin du haren erabakia. "Orain hasiko da asteburuez gozatzen. Bidaiek egiteko eta ondo pasatzeko aukera izango du".

Naiara izan ezik, familia osoa bizi da Landatxueta inguruan. "Guztiok gaude poz-pozik Loiun. Ni hangoa naiz eta, badakizu, ahuntza, beti larrera", esan du Alexek. Eguneroko elkarbizitza aurrera

*"Aitaren papera zaila
da, taldean hamar
neskarekin jokatu behar
duelako. Gu laguntzen
saiazen gara"*

*"Aitak euskaraz
egiten dit errieta;
eta entrenatzaileak,
gastelaniaz"*



Banan-banan

Alex Aurre (1960): Maristas, Patronato, Cajabilbao eta A Coruña taldeetan jokatu zuen. Gaur egun emakumezkoen Loiola Indautxu senior eta gazte taldeen entrenatzailea da, baita Euskadiko entrenatzailea ere.

Maite Lecea (1964): Kaixo taldean jokatu zuen, garai hartako emakumezkoen Bizkaiko talderik onenean. Gaur egun Loiola Indautxu taldearen delegatua da.

Naiara Aurre (1985): Irlandesas, Ibaizabal eta Loiola Indautxu taldeetan jokatu du. Gaur egun emakumezkoen Loiola Indautxu gazte taldearen entrenatzailea da, aitarekin batera.

Jone Aurre (1990): Irlandesas taldean hasi zen jokatzeko, baina 2010etik aurrera Loiola Indautxu taldean jokatu du. Pibot aritzen da.

Nerea Aurre (1995): Irlandesas taldean ere hasi zen jokatzeko, baina 2014an bat egin zuen bere senideekin Loiola Indautxu taldean. Alaba txikia hegaleko aritzen da.



eramateko, alabek uste dute aita eta entrenatzailea bereizten jakin behar dela. "Aitaren papera zaila da, taldean hamar neska ezberdinekin jokatu behar duela. Gu laguntzen saiatzen gara". Familia guztietan gertatzen den moduan, batzuetan gatazkak ere izaten dira, batez ere aita eta Naiararen artean, "berdinak" direlako, Jonek azpimarratu duen moduan. "Bitxia da: errieta aita egiten badit, euskaraz egiten du; eta entrenatzaileak, gaztelaniaz" (kar kar)", dio Naiarak. "Tira, asko aldatu dut eta gaur egun askoz lasaia naiz", erantzun dio Alexek irribarretsu.

Saskibaloiazen zaletasunak ordu pilo bat eskatzen die aurretare, eta Alexek ondo daki zaila dela ogibidea eta zaletasuna uztartzen, eta horregatik eskerrak ematen dizkio alabei eta, batez ere, emazteari. "Nik txandaka egiten dut lan, eta Maitek ulertzen du nire pasioa, eta izugarritzko laguntza ematen dit". Esaera zaharrak dio senideak elkartzen badira, otsoen beldurrik gabe, lasai doazela mendira. Aurretarek lasai jokatzen dute saskibaloian.



**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**

2016KO UDA

MAILAK
Habeko Curriculum berriko mailak

NORENTZAT
16 urtetik gorakoentzat

ERRITMOAK
Uztaila-Iraila
Autoikaskuntza ikastaroak-BOGA

MATRIKULA ZABALIK
Ekainaren 1etik 20ra

DIRULAGUNTZAK ETA HOBARIAK
Langabetuentzako beren beregi diruz lagundutako ikastaroak

**Matrikula
zabalik**



 Herriko Plaza, 3 - DERIO  Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38  euskaltegia.txorierri@bizkaia.org

Parte-hartzaileak, solidarioak eta bardintasunaren aldekoak



Ekainaren 23an, San Joan sua biztuko da barriro Sondikan eta hilearen 26ra arte izango dira jaietan. Aurreko urteetan moduan, adin eta gustu guztientzako ekitaldiak antolatu dira, besteak beste gastronomia eta kirol lehiaketak, kalejirak eta musika emonaldiak.

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

korregandik gerta

AMOKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALERONKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Ehengo bako ordutegia

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 473 746

Mixino. 6 behe
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

a: Sondikako Udala

Udaletik azaldu deuskuen moduan, San Joan aurtengo jaiak hiru ardatzetan oinarrituko dira: herritarren parte-hartzea, herriko alkartearen inplikazioa eta solidaritatea eta bardintasuna. "Herritarren parte-hartzea ahalik eta handiena izatea gura dogu. Egia esan, San Joan gauean, liburutegitik landaraino egiten dan su-suzien kalejira jentetza handia batzen da. Kale-antzerkia be egiten da kalejirea girotzeko". Sondikoztarrak herri bazkarian eta antolatu diran lehiaketa ez-bardinetan aritzea be bada Udalaren helburua. Horren haritik, aldaketa bat egongo da Pintura lehiaketan. "Lanak lehiaketearen egun berean aurkeztu dira aurreko urteetan, baina aurten erabagi dogu lanak aurkezteko epea zabalagoa izatea, maiatzaren 30etik ekainaren 17ra bitartean hain zuzen be. Halan, lehiaketak daukan "profesional" kutsu hori gainditu gura dogu, eta herritar guztiak animau daitezcan han parte hartzera". Balkoi apainduen lehiaketea bosgarren aldiz antolatu da eta ekintza hori be oso arrakastatsua izan ohi da. "Bestalde, igaz

*Su-suzien kalejirea,
lehiaketak eta bazkaria
oso jentetsuak
izatea espero da*



Skate txapelketea egin zan lehenengo aldiz eta oso harrera ona euki eban. Barriro egingo dogu aurten".

Herriko taldeen eta alkartearen inplikazioa be ezinbestekoa izan da jaiak antolatzeko orduan. "Hareek proposatutako ekintza piloa dago jai-egitarauan. Batzuk aitatzearen, Sondika Motor taldearen kontzentrazioa edo Sondikan bertan dendarien alkartearen ekintza. Era berean, mendi martxa egingo da lehenengo aldiz, Gorondagane guraso alkartearen eskutik". Udalaren webgunean dagoan iradokizun-ontzia ezinbesteko tresna izan da herritarren eta alkartearen eskaerak eta proposamenak jasotzeko, eta ahal izan dan neurrian jai-egitarauan sartu di-

ra. "Jentearren inplikazioa oso-oso handia izan da eta uste dogu jaiak erabat parte-hartzaileak izango dirala".

Esan moduan, San Joan jaien hirugarren zutabea solidaritatea eta bardintasuna izango dira aurten. "Igel-tokea lehen egiten zan ekintza da eta berreskuratu eguin gura izan dogu. Lehiaketea antolatu da eta izen emotearen bidez lortzen dan dirua Friedrich Ataxia gaixotasuna ikertzerantz zuzenduko da. Bestalde, bardintasunaren alde eta genero indarkeriaren kontrako pegatinak banatuko doguz. Errespetua nagusi daben jaiak gura doguz".

Rock gaua

Jai-gunea San Joan landan atonduko da eta, ohikoa dan moduan, karpa bat ipiniko da bertan. Antolatzailleen esanetan, ekintza erakargarriena San Joan gaueko su-suzien kalejirea izango da, duda barik. Sukalki txapelketak eta herri bazkariak be jente asko erakarriko dabe. "Zapatuan rockaren gaineko gau tematikoa egongo da eta Marea, Extremoduro eta Platero y tú taldeen abestiak joko dira. Espero dogu kontzertuan lagun piloa batzea, eta jentea animau gura dogu rockzalez janztera, ekintza girotzeko". Horrez gain, eta lau egunean zehar, sondikoztar guztiei zuzendutako ekitaldi sorta zabala egongo da herrian: haurrentzako jolas-parkea, erromeria, dantza agerraldia eta gaztai dastatzea, banaka batzuk aitatzearen. "Esfortzu handia egin dogu aurten. Gure asmoa diru gitxiagogaz gehiago prestetea izan da eta uste dogu lortu egin dogula. Herritarren parte-hartzea ahalik eta aktiboena izatea gura dogu eta, horretarako, sondikoztar guztientzako jai-egitaraua antolatzen ahalegindu gara. Gainontzeko txorierriarrak eta alboko herrietakoak be badagoz konbidatuta, jakina! Guztiak animau gura doguz jaietan parte-hartzera eta gugaz egun atsegin batzuk emotera. Ea eguraldia be lagun daukagun!".



*Marea, Extremoduro
eta Platero y tú taldeen
abestiak entzungo
dira zapatuko
gau tematikoan*

Ekainak 22, eguaztena

–19:30: Pentagramaren kontzertua, Kultur Etxean.

Ekainak 23, eguena

–19:30: Txupina eta zapiak banatzea, Gorabideren laguntzeagaz.

–20:00: Txitxi-burruntzia.

–22:00: Su-zuziak banatzea, liburute-gian.

–22:30: Kalejirea + San Joan sua.

–01:00: Dj animatzailea.

Ekainak 24, barikua

–11:30-14:30: Fanfarrea.

–11:30-14:00: Haurrentzako jolas-parkea, San Joan zelaian.

–12:00: Mezea + aureskua.

–13:00: Kalejirea, Ipar Elaiak txistu taldeagaz.

–13:30: Jubiladuentzako kopaua.

–16:30-19:00: Haurrentzako jolas-parkea, San Joan zelaian.

–18:30-19:30: “Jaurti zure hirukoitza” ekintzea.

–18:30: Tortilla txapelketan izena emotea, CD Sondikako txosnan.

–19:30: Gorriti eta bere animaliak.

–21:00: Tortilla txapelketea aurkeztea.

–23:30: Erromeria, Garilak 26 taldeagaz.

–02:00: Dj-a.

Ekainak 25, zapatua

–10:00: Sukalki txapelketan izena emotea, CD Sondikaren txosnan.

–11:00: Kalejirea, Ipar Elaiak txistu taldeagaz.

–11:00: Tiragoma txapelketea.



Jai-egitaraua

–12:00: Pintura Lehiaketearen erakusketeta.

–13:00: Igel-toka txapelketa solidarioa, Friedrich Ataxia ikertzeko.

–14:30: Sukalkia aurkeztea.

–16:30: Mus txapelketea, Hegalariak taldeak antolatua.

–18:00: Pintura lehiaketearen sariak banatzea, Udaltzua aretoan.

–18:30: Balkoi apainduen bosgarren lehiaketearen sariak banatzea, Udaltzua aretoan.

–19:00: Dantza agerraldia eta erakustaldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.

–20:00: Dantza plaza.

–23:00: “Hay poco rock and roll” gau tematikoa. Marea, Extremoduro eta Platero taldeei omenaldia.

–02:00: Dj animatzailea.

Ekainak 26, domeka

–10:30: Mendi martxea, Sondika Mendia taldeak antolatua.

–11:00-15:00: Barraken eguna.

–11:00: Kalejirea, Ipar Elaiak txistu taldeagaz.

–12:00: Motorzaleen kontzentrazioa, Sondika Motor eta Hegalariak taldeek antolatua.

–13:00: Gaztaia dastatzea, txosnetan.

–13:00: Apar jaia.

–13:30: Sondikan Berton alkartearen ekitaldia: merkataritza-deskontuak dituen puxikak askatzea, gozokiak...

–14:30: Alkarteen bazkaria.

–17:00: Betiko jokoak, Gorondagane guraso alkarteak antolatua.

–17:30: Skate txapelketea, Wolcirt taldeak antolatua.

20:30: Azken trakea.

TRIKUHARRI HARGINAK



Harri naturalak ipintzea eta lantzea
Baserriak zaharberritzea



Eskerrik asko Mikel Lasueni!



615 789 789
670 518 098
Unbexiki, 3 - LOIU

"Hurrengo erronka, Lenin mendia"



t: Txorierriko Udal Euskaltegia

Zelan, bada, bururatu zitzaizun Indiar joatea eta 6.500 m. Chalung mendia igotzea?

Bada, udan egin zitekeen mendia zelako eta Hego Ameriketara egin zitezkeen artekoak eginak zituelako, gainera Fernandok, espedizioa partaide batek, duela sei urte bertako inguruan egon eta ezagutzen zuelako.

Nondik datorkizu mendizaletasuna?

Txikitatik aitzak sortutako harra; Gorbeara ume-umetan igo nintzen lehenengoz, Aneto eta Perdidorra 14 urterekin, Hiru Erregeen Mahia eta Añamendira 13 urterekin, besteak beste.

Zer da atentzio gehien erreparatu zizuna Indiako espedizio honetan?

Bertako jendea, txiroak bai, baina oso eskuzabalak eta atseginak zirela; gero ere oso bitxia da haien janari guztia pikantez

IÑIGO APOITA | mendizalea

Zamudioko Arroeta mendi taldeko sortzaile bat da, Abadiñoako udaltzaina, eta egun Txorierriko Udal Euskaltegiko C1-eko ikaslea. Chalung mendira egindako bidaia-
ren berri eman digu.

josita dagoela, janari indiarra begetariano batentzat aproposa baita argaltzeko ere, baina gu ez gaude ohituta. Alkoholaren kontsumoa oso gaizki ikusita dago, gainera, haien dezentzia garestia ere bada.

Bidaian gertatutako pasadizorik?

Pasadizoren bat kontatzearen, bada, frantziar batzuekin bat egin mendi lepo batean eta haiek hurbildu ziren jakinda euskaldunak ginela eta haiek euskaraz berbarik jakin barik ezta geuk frantsesez ere, Indiako paraje hartan bukatu genuen elkarrekin abesten *Xalbadarren heriotzean*, hori bai bitxia!

Eta zeu ezagututa, seguru hurrengoari begira ibiliko zarela, ezta?

Bai jauna! Pamir aldera, Kyrgyzstan ingurura, hain zuzen, Lenin mendira, Kyrgyzstan eta Tadjikistan herrialde artean dagoen Pamir mendilerroan kokatzen dena. Antzineko sobietar batasuneko hirugarren mendi garaiena da, 7.134 metro ditu. Altueraz aparte, bertaraino hurbiltzeko zailtasun asko, urruntxo dago eta. Hurrengoan ere, bertan eta bertakoak kontatzeko beste aukera bat izango dugu. Ordura arte... ondo ibili!

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA
Urkiola, 6 DERIO 944541655

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAK
Ugaideguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

“Plaza beteko dogu, ziur”

MAJE LARRAÑAGA ETA ALAIA SAENZ | Larrabetzuko GEDren kideak

Gure Esku Dago herri dinamikaren haritik, Ebatzi taldea osatu da Larrabetzun. 2017ko udabarrian galdeketea egitea helburu daukiela, taldeak adierazpen bat adostu dau eta hori ekainaren 4an aurkeztuko dabe jentaurrean. Adierazpen hori dinamikaren hiru printzipioetan oinarritu dabe: herri bat gara, erabagiteko eskubidea daukagu eta herritarren garaia da.



t: Itxaso Marina

Zer prestauko dozue egun horretarako?

Ekitaldi xumea izango da, baina koloretsua eta jai-giroan. Asmoa da herritarrek kalera ataratea, plazara ekartea. Jakin gura dogu atxikimendua zenbat pertsonak emongo deuskun, eta horrek be indarra emongo deusku 2017ko galdeketa horretara joateko.

Zertan batuko dozuez indarrak datozan hilabeteotan?

Ahalik eta jente gehiengana ailegau gura dogu; eta jente ezbardinarengana, gainera. Uste dogu ebazteko eskubidean sakontzeko garaia dala, herritarrok gai honen inguruan berba egin behar dogula, eta gure kezka azaldu. Aurkezpene bidea emongo deusku horretarako, izan be, guk garrantzia bideari emoten deusagu. Horri jagokonez, jadanik hasi gara alkarre eta herritar batzuegana hurbiltzen, adierazpena zabaltzeko eta gure asmoak adierazteko. Adierazpenaren aldeko sinadurak batzen be hasi gara. Guretzat inportantea da esatea Larrabetzun egin geinkeala, eta lortuko dogula. Eta erronka be bada.

Eta zelan helduko deusazue erronka horri?

Ilusino handia daukagu, eta herritarrengana hurbildu garanean be aldeko erantzuna euki dogu. Itxaropentsu gabilz eta espero dogu aurkezpenera jente asko hurbiltzea. Ea orain arte animau ez dan jentea be erakarteko gai garen! Ezin da zifrarik emon, baina plazea beteko dogu, ziur.

Ekainean galdeketa egingo da 36 udalerritan. Bertan gertatuko danaren zain?

Galdeketa horreei begira be ilusinoz gabilz, guretzat tranpolin bat izango diralako. Beste herri batzuetan esperientzia hau ondo ataraten bada, indarra izango da guretzat, duda barik. Gainera, beste herri horreetan egiten dana Larrabetzura egokituko dogu, udazkenetik udabarrira bitartean hainbat ekintza egingo diralako herrian. Eta argi dago udabarrira indartsu ailegetako, gauzak egin behar dirala eta herriari gai honen inguruan berba egiteko aukerea emon behar jakola.

Zelan erabagiko da zer galdetu 2017ko udabarrian?

Galderea prozesuan parte hartzen dogun guztion artean erabagiko dogu. Azken baten, hori da hain zuzen be prozesuaren gauzarik politenetako bat: dana dagoala

“Ahalik eta jente gehiengana ailegau gura dogu; eta jente ezbardinarengana, gainera”

“Igaz be hautestontzi bat irudikatu genduan. Ba, orain hori edukiz beteko dogu”

zabalik eta jentearen arabera eginda. Dana dala, oinarri barik ez dogu lan egingo, galderek beste herri batzuetan be egin diralako, bai Euskal Herrian bertan, bai Katalunian, Eskozian... Horreek aztertu, gurera egokitu eta guztion artean adostuko dogu zelango galderea egin. Guri jagoku galderea planteatzeko, azken baten, helburua herritarren arteko harremana sendotzea da, eta herria gai honen inguruan aktibatzea.

Adierazpena

Herri bat gara, ebazteko eskubidea daukagu eta herritarren garaia da. Guri, herritarroi, jagoku gure etorkizuna askatasunez ebazteko eskubidea.

Larrabetzuarron berbea entzun daiten eta ahalik eta herritar gehienek babesa izango dauan akordu zabala lortzeko, 2017ko udabarrian egingo dan galdeketeari hasikerea emongo deusagu.

Halanda ze, galdereak larrabetzuar guztion eritxi eta burubideak adierazo beharko ditu. Eta horretarako, alkarreganako errespetuan oinarrituta, ezbardintzen gaituen pentsakera eta proposamenak gainditu eta alkar

hartuta jardungo dogu ebazteko eskubidearen inguruan bateragunak bilatzen.



Katalunia aitatu dozue. Aspaldi honetan gitxi entzuten da komunikabideetan prozesu katalanaren gainean, baina orain dala egun batzuk bere konstituzinoaren zirriborroa aurkeztu dabe...

Hareei ez jake itxi galdeketea egiten eta beste bide bat hartu dabe. Ez dakigu bidean ipini jakezan traba horreek guztiak gaintzeko gai izango diran... Euskal Herrian zer gertatuko dan be ez dakigu. Hauteskunde orokorrak gertu daukaguz eta Madrilen gauzak aldatu daitezke, beharbada. Baina, egia esan, gatz ikusten dogu... Berton be alderdi nazionalistek ez dabe erakutsi Katalunian adierazo daben batasuna... Beno, herritarrak, behintzat, ilusinoz gabilz lanean, eta aldarrikatu gura dogu, behingoz, herri honek ebazteko eskubidea dauala.

Hori argi lotu da giza kateagaz, San Mameseko ekitaldiagaz, herrietan taldeak egiten dabilzan lanagaz... Aurrera, ezta?

Bai, aurrera goaz. Giza katea osatu genduan eta igaz be hauteskontzi bat irudikatu genduan. Ba, orain hauteskontzi hori edukiz beteko dogu eta datorren urtean herri galdeketa egingo dugu.

ikasi eta bizi
izandakoa
ez duzu
ahaztuko

**UDAKO
ESKAITZA 2016
CURSOS DE VERANO**

TXORIERRIKO AEK
Txepetxa euskaltegia

UDA IKASTAROAK
uztailaren 5etik 29ra
Irailan ere bai!

Apuntatzeko epea: ekainaren 30era arte
94 454 39 67 / 607 598 794
txepetxa@aeak.eus

aeak | Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

EUSKALTEGIAK
IKASTARO TRINKOAK

ON-LINE IKASTAROAK
ERE BAI!

**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**

**FAMILIA
BARNETEGIAK**

**BARNETEGI
IBILTARIAK**

673 200 100 - 946 464 000
www.aek.eus

*t: Itxaso Marina***Txiste fazilagaz hasiko gara. Postariak beti jotzen dau birritan?**

Kar, kar. Batzuetan, behin bakarrik; eta beste batzuetan, hamar bider... Leihoak zabalik dagozan eta etxean bateren bat badagoala dakizun arren, ez dauhalako inork atea zabaltzen.

Zenbat urte daroazuz postari?

Hogei urte baino gehiago. Ni lan barik nengoan eta Correos-en ebilen lagun batek esan eustan zerrendak zabalduko zituela, oporretan ordezkioak egiteko. Papearak bete eta Mungian hasi nintzan. Gero, oposaketak aprobau eta Urdulizera bialdu ninduen. Urte piloa emon nituan bertan. Zamudiora 2009. urtean etorri nintzan.

Guk kalean ikusten zaitugu normalean, baina bulegoko lana be egin behar. Zertan datza zehatz-mehatz zure lana?

Banatu beharrekoa sailkatu eta antolatu egiten dogu bulegoan: paketeak, gutun ziurtatuak... Kalera atera eta horreek banatu ostean, bulegora itzultzen gara egindako lana berrikustera, ea dana ondo dagoan, zerbait banatu barik lotu dan... Sinatu eta etxera.

Lan neketsua da?

Ez, niri gustetan jat. Kaletik ibiltzen naz eta ez nago bulego baten sartuta. Baina, jakina, abantaila dana desabantaila bihurtzen da eguraldi txarra dagoanean... Lankideakaz be oso pozik nago, oso jatorrak dira danak eta oso giro ona dago gure artean. Bestalde, oso harreman zuzena daukat jenteagaz eta hori be gustetan jat. Nahiz eta batzuk apur bereziak izan, jentea oso jatorra da normalean.

Herritar guztion, edo gehienon, izen-abizenak ezagutzen dozuezan ospea daukazue.

Baita NAN zenbakia be; gero, nirea ahiztuta eukiten dodan arren (kar, kar). Kopiau eta kopiatzearen podasoz... Ariketa itzela da bururako!

Herrian bertan egiten dozu lan, Zamudion zein Derion, baina lehen baserrietatik be banatu dozuz gutunak-eta. Erosoago herrian, ezta?

Ba, ez dakit ni be baserrikoa nazalako izango dan, baina, egia esan, ezbardina da. Baserrian bizi dan jentea bakartuago dago eta hara joaten zaranean, berba egiteko gogoia daukie normalean. Baina pisuan bizi diran batzuek be bai, ez pentsau!

"NAN zenbakiak be badakiguz buruz"

IZASKUN JAUREGI LARRAZABAL | postaria

Bulegoa Derion daukala, sondikoztarrak egunero-egunero eroaten deutsez gutunak Udaletxearen inguruan bizi diran derioztarrei, eta herriguneko zamudioztarrei. Izaskunengana hurbildu gara, bere lana apur bat hobeto eza-gutzeko asmoz.

Behin, laugarren edo bosgarren pisuan, ez dot gogoratzen, bizi zan edadeko andra bati eroan neutsan gutun ziurtatu bat. Ez egoan igongailurik eta andreak mobikortasun-arazoak zituan; hortaz, ni neu igon nintzan bere etxera. Eskerrak emoteaz ganera, bere bizitza osoa kontau eustan. Eta handik ezin mobidu, jakina! (kar, kar).

Espesientzia txarrik bizi izan dozu?

Bai, eta topiko bat iruditu arren, txakurrakaz. Persona berezi batzukaz be euki dodaz arazoak, batzuetan "apur bat holan" paretan dira-eta. Isildu egin behar zara.

Badago han banatzea gustetan ez jatzun lekurik?

Ez, ez dot maniarik. Dana dala, Zamudio nahiko txikia da eta dana dago batuta; Derio, oster, handiagoa da, bai



na ondo. Beno, bai; igongailurik ez daukien pisuakaz ez naz ondo konpontzen (kar, kar).

Anekdotak bitxirik badozu kontetako? Ez dakit, existitzen ez dan helbideren bat...

Birritan jaso dogu gutun bat ohar honeekaz: urlia ez dakit zer, eskura entregau, Derio. Eta Mungiako lagun batek hau topau eban beste gutun baten: Larramendi y kastola (kar, kar).

Argi dago bigarren gutuna ikastolarako zala, baina ez dakigu ezer lehenengoaren gainean. Zer egiten da kasu horreetan?

Igorlea nor dan badakigu, bueltatu; eta igorlerik ez badago, biltegian itxiten da egun batzuetan. Ondoren, Bilbora bialtzen da.

Gutuna ailegaten ez bada, postariaren errua da beti?

Batzuetan izan leiteke. Igaz-edo, mila-gutun gordeta eukan postari baten barri emon eben komunikabideek. Gutunok erretzeko asmoa eban, antza. Jenteak, nahiko harriturik, galdetzen eustan ea zer-bait entzunda neban horren inguruan. Nik

*"Baserrian bizi dan jentea
bakartuago dago eta
normalean berba
egiteko gogoia daukie"*

esaten neutsen baietz, baina nasai egoteko, nik ez nebala inoren gutunik biltegian gordeta (kar, kar).

Zein sasoitan dozue lan gehiago?

Gabonak hasi baino lehen. Jenteak gauza piloa erosten dau Interneten bidez eta pakete asko banatu behar doguz. Hauteskundeak be lan piloa ekarten deuskue, eta aurtun hauteskundeak errepikatu egin behar dira, gainera. Kiloak eta kiloak paper banatu behar dira, eta lana be atera behar da, zeuk jakingo dozu zelan... Errenta-aitorpenagaz be bagabilz lanpetuta.

Postariak gutunak-eta narruzko zorroan eroaten zituen garaia ez dozu ezagutu; halanda be, asko aldatuko zantzen lana urte honeetan.

Bai! Lehen eskuz egiten genduan dana, eta gero hasi zan ordenagailua erabiltzen, lanaren erregistroa eroateko. Orain PDA be erabiltzen dogu. Bestalde, teknologia barriek erabiltzaileen ohiturak aldatzea be ekarri dabe. E-maila, WhatsApp... Ba, horreen ondorioz, oso gutun pertsonal gitxi ikusten da. Batez be paketeak banatzen doguz, Txinatik piloa datoz, fakturak, banketxeen eta administrazioen gutunak...

Krisia be nabarituko dozue.

Bai, esate baterako, bateren batek oporrak hartzen baditu, ba, ez dator ordezkorik. Bere lana beste lankideon artean banatzen dogu.

Pozik ikusten zaitugu postari moduan.

Oso. Batzuetan, neguan, hotzak hilik ailegaten zara etxera, beste batzuetan nahiko berandu... Eta beste batzuetan lehenago be bai. Izan be, nire ordutegia badot be, malgua da: batzuetan, lan guztia amaitu arte lotu behar zara, behar bada, eta orduren bat sartu; baina beste batzuetan, lana lehenago amaitu badozu, ba, etxera joaten zara.

Butroi upategiak urrezko Bacchus saria jaso du



TXAKOLIN DASTAKETAK EUSKERAZ
(taldeentzat)

✉ txakoli@butroi.com www.butroi.com ☎ 618 160 514 / 639 469 738

t: Zamudioko Udalak babestua

Ortu ekologikoa behar moduan lantzeko eta benetan emonkorra eta eragin-korra izateko, funtsezkotzat jotzen da laboreak txandatzea. Eta horretarako, planifikazioa da kakea. Komenigarria da ortua atalka banatzea eta bakotxean landatuko dogunaren egutegia egitea. Ondoko taula batean erakusten dan moduan, denporea aurrera joan ahala laboreak txandatuko doguz atal bakotxean. Nekazaritza ekologikoan oso garrantzitsua da naturak berak ekarten dauan orekea, eta hari eustea baserritarren onurarako izango da.

Txandatzeak oztopo batzuk ekarriko ditu, esfortzu handiagoa eskatzen deustolako baserritarri. Izan be, nekazariak danerik jakin beharko dau, landare bakotxak ezaugarri eta eskakizun ezberdinak ditualako eta era ezberdinez landatzen diralako: tomateak pertxa antzeko bat behar dau; indabeak, makila bat...

Halanda be, txandatzearen abantailak askoz handiagoak dira. Lurra ez da inoz elikagai barik gelditzen, emonkorragoa da eta landare-aniztasuna bultzatzen da. Gainera, ortu askotariko baten ez dago plagarik eta ondorioz, uza osoa ez da inoz galtzen, labore bakarreko ortuetan gertatzen dan moduan. Nekazaritza ekologikoan ezin dozu ortua erabat garbi izan, intsektuak egon badagoz, baina baktek bestearen kontra egingo dau eta orekari berez eutsiko jako. Danetariko intsektuak dagoz, baina ez da inoz plagarik egongo.

Alkartzea

Txandatzea oso garrantzitsua da, bai, baina baita labore bateragarriak be. Horrek esan gura dau landare batzuek beste onura ekarten deuseela, eta beste batzuek, oster, kaltea. Beraz, alkatze onuragarriak aprobeitxau behar dira eta, noski, kaltegarriak, baztertu. Ildo honi ja-

*Komenigarria da ortua
atalka banatzea eta
bakotxean zer
landatuko dogunaren
egutegia egitea*

Txandatzea eta labore b

Herritarrek nekazaritza ekologikora hurbiltzea dau helburu Zamudioko Udalak, eta horren haritik bigarren artikulua eroango dogu argitara. Oraingo honetan, Andoni Arrieta nekazari ekologikoak txandatzea eta labore bateagarrien gainean egin deusku berba.

LABOREAK TXANDATZEA

	1. ATALA	2. ATALA	3. ATALA	4. ATALA	5. ATALA
1. urtea	FRUITUA: kalabazina, piperra, tomatea, pepinoa...	ORRIA: letxugea, azelgea, espinakea...	SUSTRAIA: kipulea, berakatza, azanoria...	LEKADUNA: ilarra, indabea, lekea...	ZENBAIT URTETARAKO: marrubia, alkatxofoa...
2. urtea	ORRIA: letxugea, azelgea, espinakea...	SUSTRAIA: kipulea, berakatza, azanoria...	LEKADUNA: ilarra, indabea, lekea...	FRUITUA: kalabazina, piperra, tomatea, pepinoa...	
3. urtea	SUSTRAIA: kipulea, berakatza, azanoria...	LEKADUNA: ilarra, indabea, lekea...	FRUITUA: kalabazina, piperra, tomatea, pepinoa...	ORRIA: letxugea, azelgea, espinakea...	
4. urtea	LEKADUNA: ilarra, indabea, lekea...	FRUITUA: kalabazina, piperra, tomatea, pepinoa...	ORRIA: letxugea, azelgea, espinakea...	SUSTRAIA: kipulea, berakatza, azanoria...	
5. urtea	ZENBAIT URTETARAKO: marrubia, alkatxofoa...	ORRIA: letxugea, azelgea, espinakea...	SUSTRAIA: kipulea, berakatza, azanoria...	LEKADUNA: ilarra, indabea, lekea...	FRUITUA: kalabazina, piperra, tomatea, pepinoa...



Azeak eta legutxak, alkarregaz

ateragarriak



Onuragarria da barazki artean hilerri-liliren bat (*caléndula*) bat jartea.

rraituz, komenigarria da sustrai sakonak eta laburrak dituen landarak batera ipintea. Batak lurzoruko beheko elikagaiak hartzen ditu; eta besteak, goikoak. Horrela, tomatea eta kipulea alkarrengandik gertu jartea aukera ona da.

Beste alkartzetako on bat arto, indaba eta kalabazaren artean egiten da. Indabak nitrogenoa emoten deitso artoari, hori sendoago hazteko. Era berean, artoak sostengua emoten deitso indabari behar moduan hazteko; eta kalabazearen hostoek lurzorua estaltzen dabe eta, horrela, ez da belar gaiztorik hazten eta lurraren hezetasunari eusten jako.

Bedar txarrak

Labore bateragarriak lantzea erabilgarria be bada, bedar txarrak kontrolpean eukiteko. Adibidez, kalabazearen orria handia da eta ez dau bedar txarrik ataraten ixten. Kipulea eta porruaren orria, aldiz, txikia da eta bedar txarrak beti agertzen dira bere inguruan. Atal batean, bata bestearen atzean landatzen bado-guz arazo gitxiago eukiko dogu bertan bedar txarrakaz.

Lekua aprobetxau

Landare-aniztasuna bultzatzen bado-gu, ortuko lekua aprobetxatzen lagunduko deusku. Horren haritik, komenigarria da landare handiak eta txikiak buztartzea. Esate baterako, kalabazaren landarea oso handia da eta inguruan letxugeak jarriko dozuz. Horrela, kalabazina handi-

LABORE ALKARTUAK

PRODUKTUA	ALDEKOA	KONTRAKOA
Berakatza	Azanoria, pepinoa, tomatea, porrua, kipulea	Azea, lekaduna
Kalabazina	Indabea, kipulea, letxugea	Pepinoa
Kipulea	Berakatza, azanoria, pepinoa, letxugea, tomatea	Azea, lekaduna, porrua
Azea	Azanoria, indabea, letxugea, tomatea, pepinoa	Berakatza, kipulea, beste aza batzuk
Letxugea	Pepinoa, azea, espinakea, lekaduna, tomatea	Apioa, perrexila
Lekaduna	Tomatea, piperra, kalabazea, letxugea, azea, pepinoa	Kipulea, porrua, berakatza
Pepinoa	Azea, letxugea, piperra, kipulea, indabea	Kalabazea
Piperra	Azea, tomatea, azanoria, lekaduna	Mihilua, erremolatxea
Porrua	Berakatza, azanoria, tomatea	Lekaduna
Tomatea	Azea, lekaduna, kipulea, porrua, letxugea, azanoria	Ilarra, erremolatxea, mihilua
Azanoria	Berakatza, azea, kipulea, porrua, letxugea, tomatea	Mendea

handi dagoanerako, letxugeak jasota daukazuz.

Beste alkartzetako on bat alelopatia dira. Hau da, landare batzuek substantzia kimikoak askatzen ditue eta horreek onuragarriak dira beste landare batzuetarako. Porruak eta azanoriak, adibidez, onura egiten deitsie alkarri, baktotzak bestea erasoten dauan intsektua uxatzen daua-lako. Era berean, kipulearen usainak piper eta tomatearen kontra doazan intsektuak uxatzen ditu.

Landare lagungarriak

Borrajeari eukitea be bada onuragarria. Hazitokia izango balitz moduan erabili ahal da. Bestetik, borrajek dituen uletxuek uxatzen ditue barraskiloak eta ba-reak, eta bere horriek potasioa dabe, eta hori oso onuragarria da tomaterako. Gainera, borrajek itzel erakarten ditue er-leak, eta horreek aberastasuna ekarten deitsie ortuari. Hilerri-liliren bat (*caléndula*) eukitea be onuragarria da, intsektu on batzuk erakarten dituelako, eta lurretik datozen nematodoak hil egiten ditue-

lako. Nematodoak batez be tomatearen erroak erasoten dituen zizareak dira. Beraz, onuragarria da barazki artean *kalendularen* bat jartea. Eta albaka be bai.

Landare edo lora batzuek intsektuak uxatzen ditue eta beste batzuek, aldiz, erakarri egiten ditue, eta horri onura at-er behar deitsagu. Esate baterako, ziza ilun-hankahorixka (*capuchina*) izeneko lorak jarten badozuz ortuko txoko batean, bertan tximeleta guztiak itxiko ditue arrautzak. Eta horrek behar pilo bat au-rreztuko deusku, tximeletek arrautzak beste landara batzuetan itxia saihestuko dogulako, eta ondorioz, landare horreek garbitu beharra.

Zalantzak argitu

Zalantzarik badozu edo zure ortuan arazoren bat badozu, Andonigaz ipini ahal zara harremanetan aikortxori@aikor.com helbide elektronikoaren bi-dez. Nekazari ekologikoak bere ahol-kua emongo deitsu.

Rock & Sondika

Ekainaren 10ean eta 11n, "BBK Music Legends" Festibala izango da Ola Sondikako zentroan. Festibala lehenengo aldiz egingo da Txorierrin eta bertan nazioarteko rock mitoetariko batzuk batuko dira, hala nola, Los Lobos, Jethro Tull, Graham Nash, Bob Geldof eta Nina Hagen.

t: Itxaso Marina

Jaialdiaren iturburua "Music Legends" kontzertu-saila da, 2011. urtetik 2015. urtera bitartean Bilboko BBK aretoan egin dena. Festibalaren antolatzaileek azaldu digutenaren arabera, hura Sondikara ekartzea bilakaera bat izan da. "Ez diogu utziko BBK aretoan kontzertuak antolatzeari, baina uste dugu egitasmoari merezi duen garrantzia eman behar diogula. Sarrerak agortu ziren BBK aretoan antolatutako kontzertu askotan eta agerikoa zen asmo handiagoko egitasmo bati heldu behar gendiola".

Festibala Ola zentroan egiteko proposamena BBK-k berak egin du. BBK festibalaren babeslea da. "Helburua instalazioak ezagutzera ematea da, eta bertan, batez ere Gorabide eta Lantegi Batuak elkarte bidez, egiten den gizarteratze lana ere bai. Era berean, oso leku aproposa da, naturaz inguratuta egoteaz gainera, tamaina egokia delako. Trenez ere ondo komunikatuta dago, eta beti da interesgarria kultura ekintzen kokapena dibertsifikatzea, leku berriak ezagutzeko akuilua delako". Antolatzaileek espero dute festibala arrakastatsua izatea eta aurreikuspenak betetzea. Horrela, bada, hurrengo edizioak ere Sondikan antolatuko dira. "Egia esan, lekua asko gustatzen zaigu. Are gehiago kontuan hartzen badugu etorkizunean, metroaren hirugarren line-

aren lanak amaitzen direnean, askoz hobeto egongo dela komunikatuta".

Zalantza barik, festibalaren erakargarri nagusia kartela osatzen duten taldeak eta abeslariak dira. "Oso estilo ezberdinak jotzen dituzten musikariak dira eta pertsona bakoitzak bere musikari kutunena edukiko du, baina euren ibilbideari eta garrantziari erreparatuz gero, zail izango genuke bata edo bestea azpimarratzea. Los Lobos taldea ekartzea apustu handia izan da, beharbada, Los Angelesetik espresuki ekarri ditugu festibalera, eta horrek esfortzu handia egin beharra ekarri du bai antolakuntza mailan, bai aurrekontu mailan. Hala ere, guztiek merezi dute karteletako talde edo abeslari nagusia izatea: Graham Nash, Nina Hagen, Jethro Tull".

Bertoko musikariak

Nazioarteko izenekin batera, Euskal Herriko musikariak ere igoko dira eszenatokira: Niko Etxart, The Fakeband eta Hey Mr. Neken. "Ezinbestekotzat jotzen dugu festibalean bertako musikariak egotea,



historia etxean ere egiten delako. Banden artean koherentzia minimo bat egotea gustatzen zaigu, eta zaila da musikari hain ezberdinak uztartzea. Nolanahi ere, uste dugu lortu dugula. Bestalde, gustatuko zitzaigun eszenatokian emakume gehiago egotea, baina egia esan, gaur egun gutxi dira biran ateratzen diren emakume musikari legendarioak".

Kontzertuez aparte, "BBK Music Legends" Festibalak beste erakargarri batzuk eskainiko dizkio publikoari. Antolatzaileek horretan dabilta buru belarri. "Lau mila lagunentzako tokia dago, eta, beraz, beste jaialdi batzuekin alderatzen badugu, ez da hain masifikatuta egongo. Familia arteko egitasmoa izango da, inti-

*Jaialdiaren iturburua
"Music Legends"
kontzertu-saila da,
2011tik 2015era
bitartean egin dena*

OK
OAKLAND
ENGLISH
IKASTARD TRINKOAK, UZTAILEAN
MAILA GUZTIAK
946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cols. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



Sarrerak, 86 eta 52 eurotan salgai

Kartel dotorea osatu da "BBK Music Legends" Festibalaren lehenengo edizioarako. Barikuan, musikari hauek igoko dira eszenatokira: Los Lobos, Elliott Murphy & Band, Corizonas, David Lindley eta Amparo Sanchez; eta zapatuan: Jethro Tull, Graham Nash, Bob Geldof, Nina Hagen Band, Niko Etxart eta Hapa Hapa, The Fakeband eta Hey Mr. Neken. Sarrerak BBK-ren kutxazainetan daude salgai. Egun bietarako bonoak 86 euro balio du, eta

egun bakoitzeko sarrerak, 52 euro. Hamabi urtera arteko umeak doan sartu ahalko dira. "Festibal-barrutia betetzeko itxaropena dugu, eta ahalik eta girorik onena lortu. Bazen Txorierrin musika festibal bat egoteko garaia!".

Euskotrenek trenen maiztasuna areagotuko du, Olaraino ailegatzeko, eta autobus charterrak ipiniko dira Gasteizetik eta Donostiatik. Renfek ere beharpenak egingo ditu, nahi duen guztia festibalera hurbil dadin.

moagoa, eta, esate baterako, nahi dugu gastronomia zerbitzu bat izan beharrean, balio erantsia izatea. Bertoko produktuak eskaini nahi ditugu, kalitatezkoak eta originalak: Thate anaien saltxitxak, taloa eta txorizoa... Ziur asko, ardo ondua topatzea kalimotxoa topatzea baino errazago izango da". Tren bereziak ipiniko dira Bilbotik Olara ailegatzeko, baina zapatuan ibilbidea oinez egiteko aukera ere egongo da, Juanjo San Sebastián alpinistak gidatuta. "Ibilbide erraza da, batez ere ibiltzea gustatzen zaienentzat, Bilbo eta Sondika uste baino askoz hurbilago daude-eta. Ekintza polita izango da eta parte hartzera animatzen direnek kopaua jasoko dute sarritzat".

Saltoki atxikia
bonoRedekor



Jensen oheak,
bakarrik
SUIT DELUXen

**Delux lo egin,
zoriontsu esnatu**

SUITE DELUX
MARKA EKSLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

LEIOA: La Avanzada, 80 - 944 316 516 DERIO: Seminario - 944 545 147 SUITDELUX.COM

Larrabetzun, energia berdearen alde



Duela urte batzuk, eta beste herrialde batzuetako adibideei jarraituz, Euskal Herriko kooperatiba energetikoek (Goiener, Energia Gara, I-Ener) energia-iturri berriztagarrien aldeko apustua egin zuten eta multinazional energetikoen merkatu elektrikotik desentxufatu ziren. Abenduan, Larrabetzuko 40 familiak baino gehiagok ere egin zuten horrela. Denek batera, enpresa multinazionalekin kontratu elektrikoa bertan behera utzi eta kooperatiba batekin kontratatu zuten. "Zero zabor ekimenaren ereduari jarraituz, sostengarritasun ekologiko eta ekonomikoaren aldeko beste urrats txiki bat egin dugu herrian. Ez da garestia, ez da kontagailua aldatu behar, hornikuntza eta zerbitzua seguruak dira, potentziaren eskaria jaisteko aprobetxa daiteke eta beste eredu energetikoaren aldeko beste pau-

so txiki bat ematen laguntzen da". Gainera, haien arabera, "Udalak ere konpromiso bera hartu du, eta aldatu egingo du kontratua". Ekaineko lehenengo hamabostaldian, kanpainari ekingo diote berriro, eta plazan informazio gune bat ipiniko dute, nahi duenak informazioa eskura dezan.

Larrabetzuarren ustez, badaude arrazoi asko eredu energetiko berri baten alde egiteko. "Etekin ekonomikoaren gaitetik, natura lehenetsiko duen eredu bat behar dugu, eta ez multinazional energetiko erraldoiek (Iberdrola, Endesa, EDP...)

sustatzen dutena". Era berean, azaldu dute, ekologistek eta zientifikoek dioten moduan, krisi energetiko sakon batean gaudela eta horren ondorio nagusietariko bat aldaketa klimatikoa dela. "Gainera, "petrolioaren gailurra" jadanik gainditu dugu; hau da Lurrean zegoen petrolioaren erdia baino gehiago kontsumitu dugu, eta hemendik aurrera geratzen dena txarragoa, toxikoagoa eta garestia izango da".

Nuklearrik ez

Bestalde, gogoratu dute 2015eko abenduan, Parisen Nazio Batzuek antolatutako bileran, munduko agintariek adostu zutela planetaren batez besteko tenperatura 2º C behetik mantendu behar dela. "Klimatologoaren iritziz, hori lortzeko, erregai fosilak (ikatz, petrolio, gasa, uranioa...) erretzeari utzi behar diogu, eta energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako trantsizio energetikoari ekin".

Azkenik, energia nuklearraren kontra azaldu dira. "2016an, hiru efemeride nuklear goibel gogoratu ditugu. Martxoaren 2an, Franco diktadoreak zentral nuklearra inauguratu zuen Santa Maria de Garoñan, eta martxoaren 11n, bost urte bete dira Fukushima Garoñakoa bezalako erreaktore nuklear batek eztanda egin zuela itsasoko lurrikara baten ostean. Apirilaren 26an, 30 urte bete dira Txernobilgo istripua izan zela. Argi dugu energia nuklearra ez dela konponbidea, arazoa baino".

Informazio gehiagorako:
energiaberdea.com

*"Ez da garestia
eta beste eredu
energetikoaren
aldeko beste pauso
txiki bat ematen da"*



Txinbo burubeltza

Inteligentzia musikala

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Goizeko zazpiak aldera, kanpotik nabilela, txori kanta zoli-zoliak geldiarazi nau; neugandik metro pare batera dihardu: eder, zein eder! Segundoetan erlojuaren tik-taka taupada bilakatu da. Eta "txinbo" txiki buru beltz soila, aizu!

Hurrengo pagora alde egin bezain laster, hegaziaren melodiari letra ipintzen hasi naiz, entzundakoa Aikortzen; nahiz-eta norberak jakin, askotan, errealtatera heltzeko berbak eurak baino aproposagoa dela musika. Zeozergatik sartu zuen Howard Gardnerrek inteligentzia musikala adimen anitzen artean. Zorritzarrez, gure egunotan errealtatea ez denez mikroskopio lausotueta lantzen egiazta daitekeena baino besterik, musika bera ere luxua da, gutxi batzuen-tzako artea.

Hala ere, musikaz gozatzeko behar den hezkuntza musikala landu beharrean gara. Zelan eta nola aurki daiteke eskole-tako musika hain minimoetan? Eskerrak

hor direna herrietako koruak -denok esker ona zor diegunak-, kale-kantuzaleak, musika-taldeak...

Merkatuak merketu gaituen andre-gizonok, modu kritikoan jokatu beharko genuke botere ekonomikoek eta telebis-tak egiten diguten intimitate-lapurreta-ren aurrean; alferreko informazioaren zaborte-giroan; irudiaren kultura engainagarriaren erreinuan. Behar bada isiltasuna ere geuretzat eskuratu beharko genuke, zeren une batzuetan dentsitate handi-ko isiltasunaren premia izaten baitugu, eta, izan ere, pinturan gerizpea den bezain garrantzitsua baita isiltasuna musika-n.

Musikak, bestalde, ezin lezake astelehenetako trafikoa aldatu, baina geure egoera animikoa molda lezake, irribarrea -eurorik kostatu ez arren, hain garestia-inguruan zabal dezagun.

Txoria, aske bizi delako da kantari, eta kantari ona; agian, handiusteko ez delako, ze, hegaztietan, behintzat, txikiek handiek baino hobeto kantatzen dute.



Goizalde
Peluteria
Esterika
94 455 81 44
Angulei 2, behe Larrabetzu-Bizkaia

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

FRUTAK **BARAZKIAK**
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behe | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

XURREGOITI
JATETXEA
Lauroeta etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantxurregoitia.com

elekma
LARRAZTEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK
Leherengo markak • Prestorik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txorien etorbidea, 25/3 H • 48180 Lodu
T: 944 539 232
www.elekma.es

Etxeko sukaldaritza

a: es.wikihow.com



Tomate-krema

t: Maite Lekerika

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 70 g tomate heldu (azal eta hazi barik)
- 40 g arroz
- Kipula txiki bat (txikitua)
- 6 koilarakada oliba orio
- Litro bat okela-salda
- Gatza
- Ogi-xigorkiak

Prestetako area:

Kipulea oriotan erregosiko dogu. Arroza gehitu eta bost minutuan fritituko dogu. Tomatea bota eta bost minutu gehiago eukiko dogu sutan. Salda beroa gehitu eta ordu erdi baten izango dogu egosten. Ondo irabiauiko dogu, harik eta krema fin bat lortu dogun arte. Ogi-xigorkiak botako doguz gainetik. Bero aterako dogu mahaira.

Hegaluze musakea

Osagaiak:

- Berenjena handi bi
- Kipula handi bi
- Berakatz-atal bat
- Tomate birrindu lata bat
- Hiru Hegaluze-lata
- Gatza eta piperbaltza
- Oliba orioa
- Bexamela

Prestetako area:

Berenjenak garbitu eta, gitxi gorabehera, zentimetro bateko lodierako xerratzen ebagiko doguz. Paper xurgatzailea gainean ipini eta gatza botako deutsegu. Kipulea eta berakatz zurituko doguz. Kipulea txikitu eta berakatz xaflatan ebagiko dogu. Zartagin baten gorrituko doguz eta kipulea biguntzen hasten danean, hegaluzea botako dogu. Ondoren tomate, gatz apur bat eta piperbaltza. Su motelean egingo dogu 15-20 minutuan. Berenjenak beste zartagin baten fritituko doguz, alde bietatik apur bat gorritzen diran arte. Paper xurgatzaile gainean ipiniko doguz. Bexamela egingo dogu.

Musakea lasagna bat izango balitz moduan muntatuko dogu: labarako erretilu baten berenjena-xerrak ipiniko doguz; eta haren gainean, hegaluzeagaz egindako nahasia. Gainean, berenjena-xerrak barrira, eta gainean, hegaluze-nahasia. Goko geruzan, bexamela ipiniko dogu. Labarra sartuko dogu 180 gradutan eta bertan 25-30 minutuan eukiko dogu.

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama

BOLALEKU
JATETXEA

10. URTEREUNA

Garaioitza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantziak
Facebooken

- Hainbat menu
- Karla
- Ospakizunak
- BOLAPARK

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias
24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis 48196 Lezama



Zer irakurri?

Jose Angel Mentxaka (Liluratura taldea)

Izenburua: Gabriel Aresti BioGrafikoa

Idazlea: Adur Larrea

Argitaletxea: Erroa

Edizio urtea: 2015

Gutxi edo asko, denok entzun dugu Gabriel Aresti izena. Kale baten izena delako, behintzat, ikastetxeren batena edo euskaltegiren batena. Beharbada, bere poemak abesti askotan abestu edo entzun ditugu jakin barik: *San Simon eta San Juda*, *Bizkaiko aberatsak*, *Guretzat berdin dira*, *Gora eta gora beti...* Gehienak, Oskorrik musikatutak. Bateren batek buruz jakingo du poema hau: *Nire aitaren etxea defendituko dut*. Otsen kontra, sikatearen kontra, lukurreriaren kontra, justiziaren kontra, defenditu egingen dut nire aitaren etxea... Politikari batek ere hitz horiek erabili ditu orain dela ez asko. Belaunaldi berriek institutueta ikasiko zuten, eta ahaztu ere, agian. Beste garai batekook

Harrizko Gabriel Aresti hau

ikastetxeetan aipamenik ere ez genuen entzun, jakina.

Bada, gaur gomendatzen dudana liburuari oso aproposa deritzot Gabriel Aresti ezagutzeko. *Gabriel Aresti BioGrafikoa* komikia da, oso erraza irakurtzen eta, nire ustez, ezin hobeto kokatzen du pertsonaia bere garaiko *Bilbaon*. Izan ere, ezin dugu ahaztu Gabriel Aresti Bilbon jaio eta bizi zela gerra osteko giro frankista eta erdaldunean. Eta hor, harri bitxia, oso bitxia, zen. "...euskera Bilboko portuan ikasi dut, urdaiazpiko frijitua jaten nuenean, kafesne koinakatua edaten nuenean...". Bere bizitza umezarotik hil arte ezagutuko dugu, eta bide batez, errepasoa emango diogu frankismo garaia.

Euskararen mundu honetan, oso garai erabakigarriak bizi izan zituen: euskara batua finkatzea, bertsolaritzaren berpizkundea, ikastolen sorrera... Eta ez zen be-

ti ondo ikusita egon: "gorriegia ei zela", "españolista ei zela". Bera ere, polemika zalea.

Liburuak hainbat pasadizo ere bada-kartza. Esate baterako, euskal izenak debekatuta zeuden garaian, zelan lortu zuen alabei Nerea, Guria eta Andere jar-tzea?

Amaitzeko, bere poema bat:

Hitza nirea da.

Ez didate eman.

*Ez nuen inoiz eskatu nahi,
eta gure etsaiak beren
diruak kontatzen zeudela,
deskuido batean lapurtu
egin nien.*

*Orain hitza nirea da,
eta ez dut ematen
ez diru-truk,
ez ogi-truk,
ez musu-truk.*



Erakusketak

Sondika

- > San Juan jaietako kartelak (1987-2008). Ekainaren 1etik 27ra, Erakusketak Gelan.
- > "Sondikako Udala" I. Pintura Lehiaketa. Ekainaren 28tik uztailaren 15era, Erakusketak Gelan.

Derio

- > "Los colores del país", P. Zarrabeitiaren eskutik; eta "Zarautz", Ramón Serraren eskutik. Ekainaren 7tik 23ra, Kultur Birikan.

Hitzaldia

Derio

- > Bikotearen harremanaren, eta lan eta familiaren arteko kontziliazioaren garrantzia, heziketan. Juan Karlos Alonso psikologoaren eskutik. Ekainaren 1ean, 18:30etan, Kultur Birikan.

Zamudio

- > "Ama hilekoa etorri zait". Ekainaren 9an (gaztelaniaz) eta 16an (euskaraz), 18:00etan, Zamudiotorren.

Lezama

- > Mindfulness. Ekainaren 3an, 18:30ean, Kultura Aretoan. Udalak eta Moreak taldeak antolatuta.

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: Iñigo Aranbarriren *Txanton Garrote agertokitik jaitsi zen eguna*. Ekainaren 16an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

Ikuskizunak

Derio

- > *La barca sin pescador* antzezlan. Ekainaren 1n eta 12an, 19:00etan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkarrekin antolatuta.
- > Kukuke antzerki eskolaren emanaldia. Ekainaren 14an, 18:00etan, Gurea Aretoan.

Irteerak

Zamudio

- > Laga-Arteaga. Ekainaren 12an, Arroeta mendi taldeak antolatuta.
- > Iruña-Sara-Hondarribia. Ekainaren 18an eta 19an, Lagunandrek antolatuta.

Lezama

- > Europako mendiak. Ekainaren 10etik 12ra, Gailur mendi taldeak antolatuta.
- > Valderejo. Ekainaren 18an, 9:00etan, Lezamako eskolan. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Jaiak

Txorierri

- > San Joan, ekainaren 23an.
Loiu, 17:00tik aurrera: Futbol *indoor* txapelketa, txokolatada, jaitiera argizuziekin...; **Derio**, 19:00etan: dantzak, txitxi-burruntzia, txokolatada...; **Lezama**, 20:00etan: afari merienda, animazioa, musika, sua piztea...; **Zamudio**, Bidekoetxe parkean.

Zamudio

- > San Tomas. Ekainaren 17tik 20ra: idi-probak, lehiaketak, erromeriak, dantzen agerraldia...
- > San Zenón. Ekainaren 23an, Galbarriatu auzoan.

Larrabetzu

- > San Antonio. Ekainaren 13an, Eleizalden.

Kirola

Sondika

- > Kirolari ateak zabaltzeko eguna. Ekainaren 4an, Aretebe eta Goronda Beko kiroldegietan, goizean.

Derio

- > Koadrilen arteko Futbol Areto Txapelketa. Ekainaren 3tik 5era, kiroldegian. Pozgarrik antolatuta.

Zamudio

- > 3x3 futbol txapelketa. Ekainaren 5ean, 9:00etan, kirolgune berrian. Zamudio Kirol Elkartearen eta Iruaitza taldearen laguntzarekin.
- > Skate eskola. Ekainaren 5ean, 17:00etan, Bidekoetxe parkeko U-an.
- > Arku-jaurtiketa eskola. Ekainaren 5ean, 17:00etan, Bidekoetxe parkean. Gezi Bide elkarteak antolatuta.
- > Bizkaiko Pisu Libreko idi proben finala. Ekainaren 12an, 19:00etan.

Larrabetzu

- > Futbol 7 txapelketa, Corea de Hunting-ton gaixotasuna dutenen elkartearen alde. Ekainaren 10etik 12ra, Uritarrak antolatuta.

Musika

Larrabetzu

- > Musika eskolaren emanaldia. Ekainaren 2an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean.
- > Musika eskolako umeen kontzertua. Ekainaren 16an, 19:30ean, Andra Mari elizan.
- > Domekak Hori Baien: Ekiza. Ekainaren 19an, 18:30ean.

Bestelakoak

Derio

- > Nagusientzako dantzaldia. Ekainaren 5ean eta 26an, 19:00etan, kanpoko frontoian. Nagusien Etxeak antolatuta.
- > I. Txakur Jaia: haurrentzako tailerrak, marrazki lehiaketa, erakustaldiak... Ekainaren 26an, 10:00etatik aurrera, Uribe Parkean.

Zamudio

- > Olgetan parkean. Ekainaren 3an, 10ean, eta 17an, 18:30ean, Agirre Lehendakariaren plazan. Lagatzuk antolatuta.
- > Balkoi apainduen lehiaketarako loreak banatzea. Ekainaren 4an, 10:00etatik 14:00etara, Bidekoetxe parkean.
- > Txorien kantarien lehiaketa. Ekainaren 4an, 10:00etan, Bidekoetxe parkean.

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeko one
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontuak doan
-Especialitateak:
umeak

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areltza doktorea, 11. - 1. edk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

ASADOR FUENTENE berria
"ur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina txingarretan erreta

LEKUNBIZAUZA 25
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

PATXI KOOP

IVAZKI KOOPERATIBA EUSKARTEA
Nabizteko gailuak | Ouzoak 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 521 587 | info@paxi-koop | www.paxi-koop

RPM MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

bai euskarari

Bai Euskarari Zientzia,
elkar trebatzen dituzten
euskaltzainen elkartea

zurtagarriak euskarari
euskaltzainak.org

urrats biziak
www.bai-euskarari.org

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializateak:
Xafie-lanak
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772016

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

48195 LEZAMA Bizkaia Certifikazioa: 36

S.T.T. LEGU
SERVICIOS DE LEY Y DE DERECHO

F: 94 455 64 17 T: 94 455 61 98

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikor.txorierrikoaldizkaria

Twitter:
@AikorTxorierri

Webgunea:
www.aikor.com





BASERRI ANTZOKIRAKO
lanpostu hauek eskaintzen dira:

Sukalde-laguntzaileak
Sukalde-garbitzaileak
Zerbitzariak

Eskarmentua eskatzen da

CURRICULUMAK BIDALTZEKO: gaizkasainz@yahoo.es

INFORMAZIOA: Gaizka: 615 79 80 99 / Gorka: 675 71 50 27